

hh
hik hasi

Jara Loirari elkarrizketa

Artea, tresna pedagogiko erakargarria

Diskalkulia

Segregazioari aurre egiteko erronkak

Eskolak bakarrik ezin badu... Zer behar du
eskolaz kanpo?

Aiala Susperregi Azpiroz



ERALDAKETA
ARIZMENDIN

BIZI-ZIKLOAK, jakin-mina pizteko bilduma berria!



AURKIBIDEA

GAIA / 8

ARIZMENDI IKASTOLAREN ERALDAKETA

2009an eraldaketa abiatu zuen Arizmendi ikastolak, Haur Hezkuntzan. Proiektu berriarekin hazi ziren haur haiek Lehen Hezkuntzara iristearekin batera, eraldaketa ziklo horretara transferitu zuten, lursaila ondu eta Konfiantzaren Pedagogia markoa findu ostean. Jauzi kualitatiboa 2018an egin zuten Pertsona Eredua zehaztean eta berau garatzeko ikaskuntzako eredu osoki aldatu dute, bereziki Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

ELKARRIZKETA / 16

JARA LOIRA

Madrilgo Bosquesuela eskolako zuzendari pedagogikoa izan zen eta gaur egun eredu horretako formatzailea da Loira. Basora egunero ateratzen dira Bosquesuelan eta hori ezin den kasuetan, astero bederen ateratzea proposatzen du hezitzaileak, haurrengan, maila pertsonalean, sozialean eta hezkuntza arloan dakartzan onurengatik.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Ainhoa Azpirotz, Ainara Gorostitzu, Olatz Lasagabaster.

Erredakzio batzordea: Mikel Agirrezabala, Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe

Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx eta Xabier Tapia.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.
Azaleko argazkia: Arizmendi ikastola
Diseinua: Grafik.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANtZA S.A.L
Hezkuntza Sailak onetsia (2023-3-24).
Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko edukiak baliatu eta zabaldu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta soilik baldintza beretan eginez gero. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Eraldaketa ezinbestekoa da

8 GAI NAGUSIA

Ikaslearen ahalduntzea ipar

16 ELKARRIZKETA

JARA LOIRA

“Naturak zentzumen guztiak elikatzen ditu eta hori oso garrantzitsua da ikasketarako”

22 ESPERIENTZIAK

Artea, tresna pedagogiko erakargarria

26 EKARPENAK I

Diskalkulia: detekzioa eta esku-hartzea LHn

30 EKARPENAK II

Segregazioari aurre egiteko erronkak definitu dituzte Eusko Ikaskuntzak eta Hezkuntza Sailak

34 AHALDUNTZE ESKOLA

Lehenik, murriztu

36 GALDEIDAZU

Eskolak bakarrik ezin badu... Zer behar du eskolaz kanpo?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

Txindokiko itzala

42 ATZEKO ATETIK

Aiala Susperregi Azpiroz

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAILA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HEZKUNTZA POLITIKA SAILA

Hezkuntza Sailak eta Kultura eta Hezkuntza Politika Sailak (Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



zerbitzua eta lana cuskaraz



Eraldaketa ezinbestekoa da

editoriala

BARNETIK ZEIN KANPOTIK, BERRITU BEHARRA DU ESKOLAK. ERALDAKETA BEHARREZKOA DA, ETA EZ SOILIK HAUR HEZKUNTZAN. ALDAKETA AURREZ PENTSATZEA BEHARREZKOA DA, HARRAPA GAITZAN UTZI GABE.



Eskolak eraldatu beharra dauka. Eskolak nahi ala ez. Amaia Antero Arizmendi ikastolako Berrikuntza Pedagogikoko taldekidearen hitzak bere egiten ditu **Hik Hasik**: “Eraldaketa etorri badator, guk nahi ala ez. Alde batetik, garbi dago eskola barneko egonezina eta motibazio falta —Bigarren Hezkuntzan bereziki— eta bestetik, gizartearen beharra; gizartea asko aldatu da. Eskolak aldatu beharra dauka, bai ala bai, kontua da nola egin nahi dugun hori: harrapa gaitzan uzten dugu, edo gu aurreratzen gara eta zentzu batekin egiten dugu gure ikastetxearen eraldaketa. Zentzuz eginda eraldaketa askoz eraginkorragoa eta kudeagarriagoa da”.

Berrikuntza ezinbestekoa da. Eta ez soilik Haur Hezkuntzan. Eraldaketa etorri badator Lehen Hezkuntzara eta etorri behar du, lehenbailehen etorri ere, Bigarren Hezkuntzara. Anterok berak dioen moduan, orokortuak baitira etapa horretan frustrazioa eta nahigabea alde batetik, eta eskola porrota eta porrot bitala, beste alde batetik.

Sakoneko eraldaketa osoa egin du Arizmen-

dik. Guztia aldatu du esentzia bilatzeko: marko pedagogikoa aldatu du, etapan antolaketa eta egituraketa aldatu ditu, metodologiak, ebaluazioa, espazioak, rolak, materialak eta abar.

Beste ikastetxeentzako baliagarriak izan daitezkeen klabeek galdetuta, hainbat apuntatu dituzte, lehenik eta behin hobetzeko asko dutela aitortzetik hasita: baliabide pertsonalak behar dira, pentsatzeko, ikertzeko, hausnartzeko, eztaibatzeko eta diseinatzeko buruak behar dira, berrikuntza pedagogikora begira egongo den lantaldea. Ausardia ere azpimarratu dute: zuzendaritza ausarta eta talde sendoa. Formazioa ere nabarmendu dute, baita autoformazioa ere, ikasleak ahaldundu behar badira, bere indarguneen jabe den hezitzailea behar baitute ondoan. Baina formazioak ez du balio metodologietan gelditzen bada, integrala izan behar du, eta bidelaguntzarekin osatua, normala baita berrikuntzaren aurrean zalan-tzak eta beldurrak sortzea. Oroz gain, iparra behar da. Norantz, zertarako, zergatik, zer, nola aldatu markatuko duen iparra. Eta iparra ikaslea da.

“Nik ez ditut euskaradunak nahi, nik euskaldunak nahi ditut. Ez dut ulertzen Euskal Herrian euskaraz ez dakien irakaslerik egotea, euskal hezkuntza sisteman euskaldunak behar ditugu eta horretan sinesten duen ikastetxe batek hizkuntza proiektu sendoa eduki behar du”

Mikel Ormazabal

HILEKO IRUDIA





EUSKARA BATUA OMENDU DUEN GIZA KATEA

Ikastolen aldeko bost jaiek antolatzen duten *Ikastolak Herriari* ekimenaren baitan, eta Orereta ikastolak sustatuta, euskara batua omentzeko giza katea egin dute Orereta-Errenteriatik Donostiara. Euskal Herri osotik gerturaturatutako 8.000 ikasle, irakasle, eragile eta herritar inguru lotu dira bata bestearen atzetik 8.226 km-ko ibilbidean. Euskaltzaindiak eta Ikastolen Elkartek euskara batuaren sorrerako kontakizuna egin dute *Batasunaren bidean*, euskara batuari gorazarre ekimenean, euskara batua gauzatu zuten izenak erreferentziatzen hartuta. Bai ikastolen mugimenduan eta bai euskal hiztunen artean euskara batuak izan duen garrantzia azpimarratu dute, guztiona, denontzat eta noranahikoa den euskara bultzatzeko ezinbestekoa izan baita.

Giza katean bildutako parte-hartzaileek beste ekimen bat ere jarri dute abian, *Euskararen Errioa* deiturikoa. Donazioz, euroak jasotzen hasi dira, euro guztiak bata bestearen atzean jarrita, Kilometro bat osatzeko asmoz urriaren 1a bitartean (Kilometroak jaiaren eguna). Jasotako dirua euskararen alde aritzen den proiektu bat laguntzeko erabiliko da.

Argazkia: Hik Hasi
Donostian, 2023ko martxoaren 24an



2009an behar zehatz bati erantzuteko ekin zion Arizmendi ikastolak eraldaketa prozesuari Haur Hezkuntzan, subjektu kooperatiboak eraikitzeke misioari erantzuteko. HHn Proiektu Berriarekin hazi ziren haur horiek Lehen Hezkuntzara iristearekin batera, eredu berria LHra transferitzea izan zen hurrengo urratsa, baina lehendabizi lursaila ondu behar zen, irakasleei formazioa eta bidelaguntza eskaini behar zitzairen Proiektu Berriak eskatzen zuen lan egiteko moduetara egokitzeko. 'Konfiantzaren Pedagogia' izendatuko zutena fintzen hasi zen orduan ikastolako zuzendaritza eta berrikuntza taldea. 2018an jauzi kualitatiboa egin zuen Arizmendik, Kataluniako aholkularitzarekin Pertsona Eredua zehaztu zuenean. Berau garatzeari begira, sakoneko eraldaketa egin du Leintz bailarako ikastolak, bereziki Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikaskuntzako eredu osoki aldatzeraino.

GAIA: IKASLEAREN AHALDUNTZEA IPAR

Arizmendi ikastolaren eraldaketa prozesua

Eraldaketa etorri badator, guk nahi ala ez. Alde batetik, agerikoa da eskoletako egonezina eta motibazio falta —Bigarren Hezkuntzan bereziki— eta bestetik, gizartearen beharra; gizartea asko aldatu da. Eskolak aldatu beharra dauka, bai ala bai. Kontua da nola egin nahi dugun hori: harrapa gaitzan uzten dugu edo gu aurreratzen gara eta zentzu batekin egiten dugu gure ikastetxearen eraldaketa? Zentzuz eginda, eraldaketa askoz eraginkorragoa eta kudeagarriagoa da”. Amaia Anteroren hitzak dira, Arizmendi ikastolako Berrikuntza Pedagogikoko taldekidearenak. Leintz bailarako ikastolak hamarkadatik gora darama eraldaketa prozesuan. Abiapuntuan premia zehatz bati erantzuteko ekin zioten berrikuntzari: “2009an kooperatibetatik unibertsitateira (Huhezira) behar bat iritsi zen: testuinguru kooperatiboan gaude eta egitura kooperatiboak ditugu, baina subjektu kooperatiboak falta zitzaizkigula ikusten zuten. Sozialki ez zuten nahiko luketen atxikimendua ikusten izaera kooperatiboarekiko”. Premia horri erantzuteko abiatu zuten ikastola osoa eraldatu duen berrikuntza prozesua, behar sozialari ez ezik, hezkuntza-xedeei eta haurren beharrei erantzutera igaro den aldaketa.

Eraldaketak hausnarketa behar du: Huhezira ikerketa talde bat jarri zen martxan orduan, Hazitegi, eta bertan parte hartu zuen Arizmendi ikastolak. Horrela, Mondragon taldearekin eta Rafael Cristobal psikiatra eta haur psikologian adituarekin eraldaketa pedagogiko sakonean murgildu zen ikastola: “Hipotesi nagusia zen subjektu kooperatiboak, batez ere, Haur Hezkuntzan eraikitzen direla”. Adituen teorizazioak Arizmendi ikastolan lur hartu zuen, hain zuzen ere Uribarri zentroan (Arizmendi ikastolaren sei gunetako batean, Arrasaten), Haur Hezkuntzako eraldaketa egitea proposatu zioten unibertsitateak eta psikiatrak ikastolari, subjektu kooperatibo horren bila. Pilotajearen parte hartu nahi zuten HHko irakasleei eta familiei formazioa eman zieten. *Proiektu Berria* martxan jarri zen Uribarrin, eta ondoren eredu hori Arizmendi ikastolako HHko beste gunetara transferitu zuten, Aretxabaletako Basabeazpi ikastolara eta Arrasateko Umezaintzara, Santa Teresara eta Orlartera. Eskoriatzako Jose Arana gunean une hartan ezin izan zen eraldaketa arkitektonikoa aurrera eraman, baina gerora lortu da.

GAIA:
IKASLEAREN AHALDUNTZEA IPAR
ARIZMENDI IKASTOLAREN ERALDAKETA PROZESUA



Hurrengo urratsa *Proiektu Berria* deitu zitzaion ereduaren transferitza izan zen. “HHn *Proiektu Berria*-rekin hazi ziren haur horiek LHra zetozen eta arduradunak konturatu ziren LHn ere aldaketak egin behar zirela, baina LHko irakasleoi gainera etorri zitzaigun ereduaren kontatua dio **Hik Hasiri** Mainer Herce. Orduan LHko irakaslea zen Herce eta gaur egun, LHko zuzendaritzatik pasatuta, LHko berrikuntza arduraduna da—. Gu gustura geunden gure egiteko moduekin, eta ez genuen ulertzen paretak botatzea, bat-batean irakasle mahaiak kentzea eta gisako aldaketen zergatia; zergatik eta zertarako aldatu? Zergatik aldatu espazioak? Zergatik hasi projektua lan egiten *Txanelarekin* gustura baldin bageunden? Eta hirugarren aldaketa nagusia adin-nahasketa zen, eta guk zalan-zak genituen”. “Begirada onarekin egindako aldaketarako proposamena zen, baina lursaila prestatu gabe zegoen, eta LHko irakasleek ez zuten ulertzen”, erantsi dio Anterok.

Ez zen soilik LHko irakasleen ezin ulertua, HHz beste-ko etapa guztietan *Proiektu Berria* “HHko kontua” zela sentitzen zuten, “asko jota LHko lehenengo ziklora iritsiko

zena”, gogoratzen du Anterok. Orduan klabea izan zen zuzendari berriak zuzendaritza talde berriari egin zion enkargua: “Ikastola honek pertsona begiratzeko eta esku-hartzeko modu amankomun bat behar du etapa guztietarako”, esan zion Iñaki Etxezarreta zuzendari berriak Anterori, eta Hercerekin eta zuzendaritza taldeko beste kideekin “HHn, LHn, DBHn eta Lanbide Heziketan, etapa guztietan, irakasleak orientatuko zituzten begirada eta ildo pedagogikoak” zehaztera jarri zen taldea 2013an.

Markoa: Konfiantziaren Pedagogia

Konfiantzaren Pedagogia kontzeptua lantzen hasi zen orduan zuzendaritza berria Cristobal aholkulari zuela. “*Proiektu Berriko* izanari izena jartzeaz gain, lur-hartzeko hiru esku-hartze eremu bereizi genituen: pertsonaren garapena eta zaintza, testuingurua eta ikas-irakaskuntza prozesua”, azaldu du Anterok. Hiru hanka horietan finkatu zuten Konfiantzaren Pedagogia, eta hainbat galdera egin zizkieten euren buruari 2015ean marko pedagogikoa ezartzeko eta liburura eramateko:

“Ikaslea erdigunean jartzeak elementu curricularrak periferiara pasatzea eskatzen du eta elementu pertsonalak, pertsona ereduari dagozkionak, erdigunera ekartzea”
Mainer Herce, Arizmendi ikastolako Lehen Hezkuntzako Berrikuntza arduraduna

GAIA: ARIZMENDI IKASTOLAREN ERALDAKETA PROZESUA

- Zer egin behar dugu ikasleak bere buruarengan, eta besteengan konfiantza izan dezan?
- Zer egin behar dugu haurrak bere testuinguruan konfiantza izan dezan?
- Zer egin behar dugu pertsonak ikas-irakas prozesuan konfiantza izan eta berau modu seguruan egin dezan?

LHn eraldaketarako lursaila prestatzeko, formazioa eta bidelaguntza giltzarriak izan ziren, irakasle guztiek ezagutu behar zuten ikastolaren iparra markatuko zuen proiektua eta euren zalantzei eta kezkei erantzuteko bidelagunak behar zituzten.

Helburua: Arizmendiren pertsona eredu

Aldaketa handiagoa zetorren, gainera: salto kualitatiboa emango zuen Arizmendi ikastolak 2018an Konfiantzaren Pedagogia inplementatzen ari zirenean Kataluniako *Horitzó 2020* egitasmoa ezagutu eta zuzendaritza pedagogikoa Katalunian hainbat ikastetxe egiten ari ziren eraldaketari begira jarri zenean. “Katalunian eskola batzuk beste ebaluazio mota batekin ari zirela lanean entzun genuen, etapak beste modu batean antolatzen zituztela... Irakurri eta hara joan ginen”, kontatu du Anterok. *Horitzó 2020* egitasmoaren koordinatzaile Xavier Aragay eta Pepe Menendez ezagutu zituzten eta haiekin ekin zioten eraldaketako hurrengo urratsari: “Guk ordurako esaten genuen Arizmendi ikastolaren eginkizuna ‘pertsona euskaldun kooperatibo eta konpetenteak’ sortzea zela, eta Konfiantzaren Pedagogia hori garatzen lagunduko zigun marko pedagogikoa zela, baina Aragayk honako galdera hau egin zigun: “Zein da Arizmendi ikastolan irakasle bakoitzak gelara sartzen denean daukan enkargua? Zer da, Matematika, Heziketa Fisikoa edo Musika irakastea? Eta nola lotzen da hori Arizmendik eraikitzen lagundu nahi duen pertsona euskaldun kooperatibo eta konpetentearekin?”. Hor *klik* egin genuen: eskola guztiok daukagu gure misioa, baina nola lortzen dugu misioa egunerokotasunean lurreratzea? Hori da galdera klabea. Nola lortzen dugu gure errotuluetan eta hezkuntza proiektuetan hain polit gelditzen den hori egunerokotasunera eramatea?”.

Eraldaketako klabeak

Kooperatibetatik zetorren behar zehatz batetik abiatuta, Arizmendi ikastolak 13 urte daramatza berrikuntza prozesuan, marko pedagogikoa aldatu du, etapen antolaketa eta egituraketa aldatu du, metodologiak, ebaluazioa, espazioak, rolak, materialak eta abar. Gisa horretako eraldaketa integrala egiteko klabeak zein diren galdetuta, hainbat aipatu dituzte Maider Herce eta Amaia Antero berrikuntzako lan-taldekoek. “Gure prozesua ez da perfektua, hori hasteko; autokritikarako eta hobetzeko gauzak baditugu, baina irakasleak aldaketa sakon honetan inplikatzeko formazioa eta bidelaguntza gakoak izan dira. Lehendabizi berrikuntzan dihardugun irakasleok formatu gara, baina irakasle guztiei eman diegu formazioa eta behar izan denean, bidelaguntza. Autoformazioa ere garrantzitsua da, irakasle bakoitzak bere gaitasunak aurkitzeko. Garrantzitsua da, baita ere, ereduak ezagutzea, guk amesten duguna jada beste ikastetxe batzuetan gauzatzen ari direla ikustea”, azaldu du Hercek.

Ikastola handia izaki (6 gune, 3.200 ikasle eta 275 profesional), berrikuntza pentsatzen eta diseinatzen talde zabala aritu da urte hauetan, baliabide pertsonalak jarri baititu Arizmendik. Ausardia da beste klabeetako bat, Anteroren aburuz: “Zuzendaritza ausarta behar da. Hasteko, berrikuntzan sinetsiko duen zuzendari bat eta ondoan ongi lerrokatutako ekipo on bat, zuzendaritza horrek lana delega dezan berrikuntza talde sendo batean, ikertzeko, edukiak sortzeko, formazioa emateko eta bidelaguntza eskaintzeko prest dagoen ekipo pedagogiko sendo bat”.

“Eskola guztiok daukagu gure misioa, baina nola lortzen dugu misioa egunerokotasunean lurreratzea? Hori da galdera klabea”

Amaia Antero, Arizmendi ikastolako Berrikuntza Pedagogikoko taldekidea

GAIA:
IKASLEAREN AHALDUNTZEA IPAR
 ARIZMENDI IKASTOLAREN ERALDAKETA PROZESUA



“Momentu hartan ez geneukan erantzunik”, kontatu du Hercek. Konfiantzaren Pedagogiak markoa ezartzen zuen baina ez zen lurrera jaisten. Erantzuna “Pertsona Ereduaren elementua deskubritzeak” ekarri zien. Ariketa bat proposatu zieten Kataluniako adituek: “2019an ikastolara etorri zen Amets umea, 2034 inguruan ikastolatik aterako da, ondoren Lanbide Heziketako zikloren batera edo unibertsitatera joango da, agian lan mundurako prestatzen jarraitzera, eta 2040 inguruan, lan mundura jauzi egingo du. Agian berak konfiantza osoa izango du ikastolan. Nolakoa izango da mundua 2040an?”. Pandemia aurretik egin zuten ariketa hori etapa guztietako arduradunek. “Ziurgabetasuna zen nagusi. Ondorioa da ez dakigula. Ariketa horrekin, eta ziurgabetasun horretan, Arizmendik garatzen lagundu nahi duen Pertsona Eredua zein den hausnartu genuen”, azaldu du Hercek. “Pertsona euskaldun, kooperatibo eta kompetentea” erdigunean jartzetik,

bereizgarri gehiago zehaztera etorri ziren: kooperatiboa, barne-sendotasuna duena, euskalduna, eraikitzaile eta ekintzailea eta eraldatzailea izendatzera. Ondoren, Ikastolen Elkartarekin elkarlanean eta ikastola guztiekin partekatzeke, bostera ekarri dituzte bereizgarriak.

Definizio horren atzean dagoen lan kognitibo guztia, Pertsona Ereduaren bereizgarriak eta bereizgarri bakoitza definitzen duten ezaugarriak *Ametsak betetzeko daude* liburuan bildu zituzten. “Arizmendi ikastolak eraikitzen lagundu nahi duen Pertsona Ereduaren ezaugarrietako bat ‘hurbilekoa eta enpatikoa izatea’ dela badiogu, zehaztua dugu Arizmendin hori nola ulertzen den: ‘Presentzia eta arreta eskaintzen duena dela, epaitzen ez duena’, adibidez. Eta benetan Pertsona Eredu zehatz hori lortzeko, ikasleengan zer-nolako inpaktuak eragin behar ditugun aztertu genuen. Irakasleak ikasleengan bereizgarri bakoit-

Pertsona ereduaren bereizgarriak:

Barne-sendotasuna duena

- Barne askatasuna
- Heldutasun afektiboa
- Ongizatearen zaintza
- Konfiantza

Eraldatzailea

- Humanoa
- Sortzailea
- Solidarioa
- Autoeratu

Erabakitzaile-ekintzailea

- Jakin-mina
- Analitiko-kritikoa
- Erresolutiboa

Euskalduna

- Euskal hiztun osoa
- Euskal identitatea ezagutu eta bizi
- Eleaniztuna

Kooperatiboa

- Lankidetzan diharduena
- Erantzunkidea
- Enpatikoa
- Komunikatzaile asertiboa

GAIA: ARIZMENDI IKASTOLAREN ERALDAKETA PROZESUA

tzean inpaktatzea lortu behar du, eta orain beraz, irakasle bakoitzak garbi du zein den bere enkargua”, azaldu du Anterok.

Pertsona Ereduaren bereizgarriak ikasleen irteera profilarri begira pentsatuak izan ziren lehendabizi, eta beraz, Batxilergo mailako inpaktuak erredaktatzea izan zen hurrengo lana, eta jarraian Batxilergorako definitu zituzten inpaktu horiek HHraino jaitsi behar izan zituzten, etapa amaiera eta ziklo amaiera guztietan inpaktuak definitzeko.

Sakoneko eraldaketa: sistemikoa eta disruptiboa

HHn hasi zen eraldaketa, ondoren LH apur bat ukitu bazen ere Konfiantzaren Pedagogiarekin, Batxilergoa izan zen pertsona ere duaren bereizgarrien arabera, desberdin lan egiten hasi zen etapa, eta tartean gelditu zitzaizen DBH. Ikaskuntzarako Eredu Berria diseinatu zuten orduan LHko 3. zikloa eta DBHko 1. zikloa batuz: “Batetik, LHren eta DBHren arteko arrakala gainditzen saiatzeko; eta bestetik, DBHn orokortua dagoen nahigabea eta frustrazioa eta eskola porrota eta porrot bitala ekiditeko”, Anteroren arabera. Prototipoa diseinatu zuten DBHrako, egiturazko aldaketekin: lehenik eta behin, zikloa LH5etik DBH2rako mailek osatuko zuten aurreantzean Batu izenpean, eta DBHko logika zatikatua saihestu zuten, “arlotan ikasgela bat, irakasle bat, logika hori apurtu egin nahi genuen. DBHko irakasleek eduki dezaketzen rol tekniko hori ere gainditu egin nahi genuen; LHn irakasleak generalistagoak dira, baina hezitzaile rola oso barneratua daukate; baina DBHn alderantziz da: nagusiki euren burua arlotan irakasle moduan ikusten dute, eta gero, tutore moduan. Euren enkargua arloa da. Hori apurtu egin nahi genuen, eta horretarako LHrekin lotura egitea estrategikoa iruditzen zitzaigun”.

Eraldaketa benetakoa izan dadin, sakonekoa eta egiturazkoa izan behar dela ikusi dute Arizmendin. “Batuetan, berrikuntzaren izenean egiten ari diren hainbat gauza plano metodologikoan gelditzen direla ikusten dugu, metodologia berriak txertatzen dira ikastetxeetan: orain, ikaskuntza kooperatiboa; orain, adimen emozionala;

orain mindfulnessa; orain pentsamendu trebetasunak lantzeko metodologiak eta dena dira metodologiak. Guk uste dugu eskola batek sakoneko eraldaketa bat aurrera eramateko, gainditu egin behar duela metodologiaren planoan, eta komunitate osoak partekatzen duen sakoneko ipar bat behar dela. Ikaskuntzarako ere du honek honako hau planteatu du: egiten dugun guztia Pertsona Eredua garatzeari begira egin dezagun”. Orduetik, Arizmendin egin duten berrikuntza oro, helburu duten Pertsona Eredua eraikitzen laguntzeko izan dadin saiatu dira.

BATUn, LH5etik DBH2ra, ezarri duten prototipoa eraldaketarako ere du integrala da. “Berrikuntza honetan sistema osoa eraldatu behar dugula ulertu dugu”, adierazi du Anterok. “Eraldaketa sistemikoa eta disruptiboa izan da. BATUn dena aldatu dugu, sistema osoa: espazioak, rolak, metodologiak, ebaluazioa, materialak, antolaketa; dena. Eta benetako eraldaketak ausartak izatea eskatzen du. Orain bai, ikaslea ahalduz duen eredurantzko bidea egiten ari gara”. Ikaslea benetan erdigunean jartzeak, elementu curricularrak periferiarik pasatzea eskatzen du, Herceek adierazi duenez: “Elementu pertsonalak, pertsona ere duari dagozkionak, erdigunera ekartzea esan nahi du”. Horrek ez du adierazten edukiak eta konpetentziak lantzen ez dituztenik, aitzitik, ikasleak modu esanguratsuan ikasteko eta ikastolan definitu duten Pertsona Eredua garatzeko Ikaskuntza Esperientzia Motak, IEMak, diseinatu dituzte eta horien arabera antolatu dute astea. “Konpetentzietan oinarritutako hezkuntza guztion ahotan dago, eta guk pauso bat aurrera ematea proposatzen dugu, eta Euskal Herriko ikastetxe guztietarako amestuko nuke jautzia. Geruza bat gehiago ezartzea proposatuko nuke: edukiak behar ditugu pertsona ere du jakin bat garatzen laguntzeko; beraz, edukiak konpetentziak lantzeko bitarteko dira, eta guretzako, konpetentziak pertsona ere duak garatzeko bitarteko dira. Beraz, baliabide bat gehiago dira konpetentziak, ez dira helburua”. Logika horretatik eraiki du Arizmendik ikaskuntza ere du berria LH5etik DBH2ra. Orain, BATUn esperimentatu eta doituak prototipoa, eraldaketa integrala, beste etapetara transferitu behar dute.

“Eraldaketa sistemikoa eta disruptiboa izan da. Batun dena aldatu dugu, sistema osoa: espazioak, rolak, metodologiak, ebaluazioa, materialak, antolaketa; dena”
Amaia Antero, Arizmendi ikastolako Berrikuntza Pedagogikoko taldekidea

Ikaskuntza eredu berria: arloetatik esperientzietara

Arizmendi ikastolak helburu duen Pertsona Eredua zehaztuta dauka bost bereizgarritan eta berau garatzeko ikaskuntzako eredu berria ezarri du LH5etik DBH2ra, Batu egitasmoan.

Arizmendi ikastolak bost bereizgarritan zehaztua dauka garatzen lagundu nahi duen Pertsona Eredua: euskalduna, kooperatiboa, erabakitzailea eta ekintzailea, barne-sendotasuna duena eta eraldatzailea. Ikasleengan eragin eta eredu horretara hurbiltzeko, ikaskuntzako eredu berri bat diseinatu zuten LH5etik DBH2rako, eta ondoren beste etapetara zabaltzen joan dira ereduak. Ikaskuntza eredu berriaren ezaugarrietako bat arloetatik IEMetara pasatzea izan da, Ikaskuntza Esperientzia Motetara. “Gure ikasleek modu esanguratsuan ikasteko eta Pertsona Eredua garatzeko diseinatzen ditugun esperientzia motak dira IEMak —azaldu du Mainer Herce—. Pertsona Ereduaren 5 bereizgarrietan eta 18 ezaugarrietan inpaktuak bilatu dira. Esperientzia horiek modu sistematikoan bizi ditu ikasleak, aste eredu baten barruan”. Ikaskuntza Esperientzietarako materiala hiru ezaugarri kontuan izanda sortu dute “Bat: Pertsona Ereduaren zein ezaugarritan eragin nahi dugu? Bi: Curriculometik zein helburuk eta zein edukik laguntzen digute horretan? Eta hiru: Garapen Iraunkorreko Helburuak”.

Klik-ak: egunari hasiera eta amaiera ematen dieten esperientziak dira. “Hausnartzuz eta euren buruarekin eta besteekin konektatuz egiten dute”. Erdi egitasmoan (HH) zirkulazio librean ibiliko dira haurrak, etxetik ikastolara-tzeko prozesua modu natural batean gauza dadin. Batun (LH5-DBH2), gaur eguneko gaien inguruan eztabaidatzeko, hausnartzeko eta sakontzeko baliatzen dituzte Klikak.

PROIak: hurbileko eta ez hain hurbileko egoera, arazoak ikertuz errealitate horretan eragiteko esperientziak diseinatu ditu lan-talde batek. BATUko maila bakoitzerako seina proiektu dituzte ekoiztiak eta gainerako etapetan diseinatu eta esperimentatzen ari dira.



Sakon: arloak kendu eta aste ereduak aldatu zutenean, hizkuntzaren eta idazketa-irakurketaren eta logika matematikoaren garapenean sakontzeko esperientzia propioak sortzeko beharra ikusi zuten.

GPS: Garapen Pertsonalerako Saiok dira. Barne-sendotasunaren bereizgarriari erantzuten dio. Norbere buruaren ezagutza, harremanak, bizitzarekiko jarrerak edota meditazioa lantzen dituzte.

Bidean: ikasleak bere burua pertsona-ereduarekiko erreferentzian aztertzen duen sintesirako esperientzia da.

LABak: ikaslearen sormena garatzeko eta PROIetatik eratorritako produktuak garatzeko tartea eskaintzen du LABak. “PROIetan bideo bat erabaki badute ikasleek, adibidez, LABetan bideo hori grabatzen ikasten da”.

BIZI: aste-eredu ohikoa apurtzen da aste batez, eta ikasleek euren zaletasunak deskubritzeko, boluntariotza-esperientziak bizitzeko aukera eskaintzen du BIZIK.

“Gure ikasleek modu esanguratsuan ikasteko eta Pertsona Eredua garatzeko diseinatzen ditugun esperientzia motak dira IEMak, Ikaskuntzako Esperientzia Motak” Mainer Herce, Arizmendi ikastolako Lehen Hezkuntzako Berrikuntza arduraduna

Lehen sastrakaz beteriko basoa, orain ikasgela

Almen guneko basoa Gura egitasmoko proiektu ardatzetako bat bihurtu da aurten, LH1etik LH4ra astero ateratzen dira haurrak eta irakasle talde bat proiektuak diseinatzen ari da.

Arizmendi ikastolaren Almen gunean, Eskoriatzan, baso bat dago ikastolaren ondoan. Urtetan, ordea, basoa ez da izan irisgarria, maldan eta sastrakaz bete baitzegoen. Auzolanean, familien, langileen, irakasleen eta ikasleen artean basoa irisgarri egin dute, eskailerak, heldulekuak eta elkarguneak eraiki dituzte eta, une honetan, GURA egitasmoaren (LH1-LH4) erdigunean dago basoa, *Naturan Hezten* proiektua: “GURA mundua ezagutzen hasteko leiho bat izan behar da. ERDUtik datoz (Haur Hezkuntzatik) eta etapa horretan haurrak egozentristak dira eta euren gorputzaren kontzientzia hartzen hasten dira. GURARA datozenean, ikuspegia zabaldu egin behar dute, Nitik Gutaz hizketan hastera igarotzen dira, eta Gu horretan sartzen da mundua. Munduaren erakusleho gisa IEM Ikaskuntza Esperientzia Mota garrantzitsua da”, azaldu du Maider Herce Lehen Hezkuntzako Berrikuntza arduradunak.

Arizmendiko Pertsona Ereduaren bereizgarriekin bat eginez, ikaslea ahalduntzea helburu duen eredu osoki txertatu da *Naturan Hezten*, GURA etapan Almenen, Herce adierazi duenez: “Torrebaso ez da beste edukiak lantzeko espazioa, adibidez matematika manipulatioa lantzeko espazio bat. Ikasgela da, eta bizipenen bitartez natura ezagutzen eta ulertzen ari dira ikasleak ezagutzarekin eta ulermenarekin etorriko baita natura maitatzea eta errespetatzea”. Mailaka, asteen behin goiz osoa basoan pasatzen dute GURAKO hurrek. “Hiru ordu igarotzen dituzte basoan jolas librea eta kanpoko ekintzetan, eta hiru ordu barruan, *Naturan Hezten* proiektuari eskainita; talde motorrak sekuentzializatuta dauka maila bakoitzak zer landuko duen, hala nola landaredia, zuhaitzak, zomorroak, hegaztiak, lurzoruak...”. Horretarako,



irakasleek Baso-eskolako formazioa jaso zuten Ekoguneko adituekin eta baita familiek ere. “Errealitatetik eta bizipenetik ikasten da. Jada ikaskuntza ez da kontaktatzen diguten zerbait; “hegaztiak udazkenean Afrikara joaten dira” ikastea gauza bat da eta, bestea, sumatzea azarora arte entzun ditugun hegaztiak urtarrilean, dagoeneko, ez direla entzuten”.

Ikasturte honetan ekin diote *Naturan Hezten* egitasmoari, baina dagoeneko antzeman dituzte hobekuntzak. “Alderdi psikomotorretik hasita, haurrak irailean nola ateratzen ziren basora, edo orain zelako abileziarekin ibiltzen diren ikusita, argi dago garapena”. Horrez gain, basoan sortzen den giroa nabarmentzen dute irakasleek, “giro lasaia, gatazka bakoa eta baretasun handiagokoa”. Ikasleen jakinmina zelan pizten den azpimarratzen dute irakasleek, eta baita konexioa ere, “ekintzetan eta dinamiketan agian ez hainbeste, baina jolas librea basoan integratuak sentitzen direla sumatzen da”.

“Errealitatetik eta bizipenetik ikasten da. Jada ikaskuntza ez da kontaktatzen diguten zerbait. Beste gauza bat da sumatzea hegaztiak, dagoeneko ez direla entzuten”

Maider Herce, Arizmendi ikastolako Lehen Hezkuntzako Berrikuntza arduraduna



“Naturak zentzumen guztiak elikatzen ditu eta hori oso garrantzitsua da ikasketarako”

ELKARRIZKETA: JARA LOIRA

BOSQUESCUELAKO FORMATZAILEA

Hezkuntza eredu tradizionalan ez zuen bere lekua topatu Jara Loirak, aldiz, pedagogia aktiboek eta berritzaileek, lehendabizi Waldorf pedagogiak eta ondoren Bosquescuela ereduak, pertsona bakoitzaren onena —baita ikasketetan ere—loratzeko duten balioa bizi izan zuen. Haur Hezkuntzan, Komunikazio Ez Bortitzean, Bizipenen Psikomotrizitatean eta Pedagogia Aktiboetan formatua dago, besteak

beste, eta Mendiko Kirol teknikaria ere bada. 2015etik 2018ra bitartean, Madrilgo Bosquescuela zuzendari pedagogikoa izan zen eta egun eredu horretako formatzailea da, eta sarri etortzen da Euskal Herrira irakasleak naturan heztera. Ikastaroetan irakasleei posible dela erakutsi nahi die, “dauden lekuan daudela” haurrak naturan hezi daitezkeela, “has daitezela seguru sentitzen diren horrekin, eta pixkanaka”.



Zuk zeuk eskola porrota bizi izan zenuen, eta ondoren Irakasle ikasketak egin eta Bosquescuelako zuzendari pedagogikoa izatera iritsi zara. Egun irakasleak formatzen ari zara. Nola-koa izan da zure ibilbidea?

Eskola porrota ez da nota txarrak ateratzea soilik, baizik eta norberak zerbait egiteko egin behar izan duen ahaleginaren eta emaitzen arteko proportzioa. Hor ikusten dut nire porrot handia. Ikaskideak, nire ustez ahalegin berezirik egin gabe, iristen ziren lekura iristeko, nik denbora asko behar nuen, eta inor ez zen horretaz ohartu. Oso esperientzia frustragarria izan zen niretzat. Derrigorrezko Hezkuntza halamoduz joan zen, irakasleek etapa horretan, oro har, ezagutzen dituzte haurrak. Baina institutura iristea ikaragarria izan zen niretzat, nik ahalegin, denbora eta gogo handia jartzen nituen, baina inork ez zuen ahalegin hura ikusten ezta nire zailtasunak ulertzen ere. Dislexia neukan.

Hala eta guztiz ere, irakasle ikasketak egin zenituen.

Bai, eta ikaragarrizko notak atera nituen, neu izan nintzen harritzen lehena. Ez nuen ahaleginik gabe

egin, baina ikasteko gogo handiarekin burutu nituen ikasketak. Ordura arte egin behar izan nuen ahalegina gehiegizkoa izan zen, baina ez nintzen ezer ikasten ari. Inork ez zeukan benetako interesik nik ikas nezan. Derrigorrezko Hezkuntza amaitu nuenean, hezkuntza zer zen ikusita, ez nuen ikasketekin jarraitu nahi, eta alderdi praktikoagoetara eraman nuen nire bizitza, ofizio bat ikastera joan nintzen tailer batera, besterik ikasteko ez nuela balio sinetsarazi baitzidaten. Baina bizitzak erakutsi zidan niri hurrekin egotea gustatzen zaidala eta Waldorf pedagogia ikasten hasi nintzen unibertsitate txiki batean, teoria eta praktikak uztartuz. Errebelazio bat izan zen, eta nire ahaleginaren neurriko emaitzak lortu nituen.

Ikasketa-ereduak eragin handia izan zuen zugar. Esan daiteke, zeuk bizi izan zenuela pedagogia aktiboek pertsona bakoitzaren garapen prozesuak aintzat hartzen dituela?

Pedagogia aktiboekin izan dudana esperientziatik norbere buruaz gartzten den irudia nabarmenduko nuke, hau da, autokontzeptua. Norbera da bere ikasketa prozesuaren benetako

protagonista, eta bakoitzak, bere erritmora eta bere interesen arabera, gauzak deskubrituz ikasten du. Perspektiba guztiz aldatzen du horrek, ikasketa beste era batera bizitzeko aukera irekitzen du. Bestetik, Haur Hezkuntzan naturan izan dudana esperientziatik, ikasteko motibazioa nabarmenduko nuke. Naturara atera orduko inguruarekiko interes handia erakusten dute haurrek, mundua leku interesgarria dela ikusten duen begiradarekin abiatzen dira, eta horrek arreta lantzea dakar. Egun osoan zehar arreta handiz jardun behar da naturan, ez baita ingurune gainba-bestu bat, eremuaren orografiatik hasita, ingurune guztiak arreta eskatzen die hurrei, baita klimatologiak eta euren gorputzak ere, eta horrek zentzumen guztiak estimulatzen ditu eta ikaste prozesua errazten du.

Zer-nolako onura dakarkie Bosquescuela ereduak hurrei maila pertsonalean, sozialean eta akademikoan?

Maila pertsonalean, autokontzeptuarena oso garrantzitsua da. Haur guztiak gai sentitzen dira naturan, baita ikasteko gai ere. Egunez egun eta urterik urte joan gara onurak ikusten, eta denborarekin ikerketa neurozient-

tifikoez berretsi dizkigute ikusten genituen aurrerapenak. Osasun fisikoari dagokionez, adibidez, askoz gutxiago gaixotzen dira umeak naturan. Pandemia garaian, kasurako, Osasunaren Munduko Erakundearen gomendioetako bat izan zen eskolak aire libreria ateratzea. Estresari dagokionez ere, onurak nabarmenak dira; haurrei estres maila jaitsi egiten zaie naturan eta, gainera, lehengoratzeko gaitasuna dauka naturak, hau da, ez da soilik estres gutxiago gartzten dela naturan, baizik eta estres prozesuak bizi dituztenei hobetzen laguntzen diela. Arreta gabeziaren jaitziera ere nabarmena da eta, gainera, egunero aurkitu ditzakezu alor guztietako erronka berriak. Inguru-neak berak kontzentrazioari mesede egiten dio eta baita saiakera-errorea prozesuari ere. Basoan, norbera da bere ikasketa prozesuan, apurka, bere neurriko erronka motrizak eta intelektualak gainditzen dituena eta mugarrak berriak ezartzen dituena.

Sormena, irudimena eta fantasia elikatzen ditu, ez baitaukate jostailu egituraturik. Ezaugarri horrek berak, maila sozialean, hizkuntzaren garapena dakar. Haurren jostailuak makilak, harriak eta gisakoak dira, ez da panpin bat edukitzea bezala, beraz, hitz zehatzak behar dituzte jolasak deskribatzeko. Gainera, basoan ez dagoenez soinu erreberberaziorik, baretasun horretatik komunikatzen dira elkarrekin. Gatazkei aipamen bat egitea ere garrantzitsua da: naturan nahi adina material daukate eskura eta horrek gatazkek saihestea dakar. Horrez gain, aniztasunari leku egiten zaionez, taldearen ongizatea zaintzea errazagoa da eta, beraz, frustrazioak gutxitzen dira eta kooperazioa sustatzen du. Gure kasuan, gainera, adin ugari biltzen dira elkarrekin, eta ikasketa esanguratsua dakar horrek.

Basoan generoa diluitu egiten da. Batetik, jostailu egituraturik ez dagoenez, jostailuek ez daukate genero kutsurik. Bestetik, guztiak berdin jantzita doaz egunero, basoan ibiltzeko arropa erosoarekin, eta ekintzek ere generoa diluitzea dakarte, eta euren arteko harremanetan nabarmena da.

Esandako guztiak maila akademikoan lagundu egiten du. Alemanian ikerketa ugari egin dira eredu hone-tako haurrak Lehen Hezkuntzara iristen direnean daukaten mailari buruz, eta sormena, irudimena, behaketa-gaitasuna, ikerketa- eta esplorazio-gaitasuna nabarmentzen dira batik bat. Kontzentrazioa, arreta gaitasuna eta, oroz gain, ikasteko motibazioa nabarmentzen dute ikerketek.

Zein dira Bosquesuelaren oinarri pedagogikoak?

Ez da tarteka basora edo mendira ateratzen garela, baizik eta egunaren zati handiena, ez bada egun osoa, eguraldi ona egiten duenean bazkaria tarteko, natura dela ikasgela, natura baita gure espazio nagusia. Eremitxia aterpetxe txiki bat da, baina hori ez da eskola, eskola natura da.

Bosquesuela ikastetxe homologatu bat da, Cercedan dagoena, Madrilgo komunitatean, eta beraz, hango Haur Hezkuntzako curriculum jarraitzen dugu, eduki eta helburu guztiak naturako elementuekin lantzen ditugu, eta ziurtatu dugu baietz, egin daitekeela. Eredu gisa ingelesa ere badaukagu, eta andereño batek beti hizkuntza horretan hitz egiten dio taldeari.

Gure beste ezaugarrietako bat adin nahasketa da, eta hori oso garrantzitsua da. Ratioa ere esanguratsua da: 8-9 haur daukagu heldu bakoitzeko, eta horrek lan guztia errazten du. Gauza asko daude esateko, baina oroz gain, jolas librearen garrantzia aipatuko nuke. Baso-eskola ereduaren ezaugarri nagusietako bat basoan jolas libre ez egituratuari eskaintzen zaion tartea da. Zabala da, eta balio pedagogiko eta sozial handikoa da.

Esan duzu zuen kasua ez dela tarteka basora ateratzea, baina egia da, era berean, zuen ereduaren ezartzea ez dela erraza. Aldiz, Euskal Herriaren gero eta ikastetxe gehiago ateratzen dira astean egun batez mendira edo basora. Hobe astean behin, ez ateratzea baino, ezta?

Egundokoa iruditzen zait astean behin basora ateratzea. Irteerak erritmo batekin planifikatzea garrantzitsua da: egunero apur bat ateratzea,

“Pedagogia aktiboekin izan dudana esperientziatik norbere buruaz garatzen den irudia nabarmenduko nuke, hau da, autokontzeptua. Norbera da bere ikasketa prozesuaren benetako protagonista. Perspektiba guztiz aldatzen du horrek”

“Haur guztiak gaitzen dira naturan, baita ikasteko gaitzen ere. Egunez egun eta urterik urte joan gara ikusten onurak eta denborarekin ikerketa neurozientifikoek berretsi dizkigute ikusten genituen aurrerapenak”



edo astean behin ateratzea... Erritmo horrek onura handiak ekartzen dizkie ikasleei, lehenago aipatu ditugun onura guztiak aktibatzen baititu. Astero ateratzen baldin bagara, adibidez, haurrak jakitun dira astean zehar espazio eta denbora hori izango dutela, eta ordenatzen laguntzen die, helduoi asteburua izango dugula, eta atsedenerako denbora eta espazioa izango ditugula jakiteak astea aurrera eramaten laguntzen digun moduan. Haurrek, kanpora atera orduko, bat egiten dute sentazio onuragarri eta motibagarri horiekin guztiekin. Gainera, sarri ateraz, natura urtaro guztietan ikusiko dute, ez da beharrezkoa izango espazio desberdinak bilatzea, espazioa bere kasa eraldatuko baita urtean zehar, eta hain garrantzitsua den atxikimenduzko lotura eraikiko dute espazioarekin, seguru sentiaraziko dituen.

Zuen ereduak Haur Hezkuntzako bigarren etapa hartzen du, 3-6 urte bitartekoa. Baina ikastaroan Lehen Hezkuntzan eta DBHn lantzeko

baliabideak erakutsi dituzu. Naturak maila altuagoetan curriculum ego-kitzeko aukera eskaintzen du?

Naturak zentzumen guztiak elikatzen ditu eta hori oso garrantzitsua da garuneko konexioentzat eta, beraz, ikasketarako eta gure ongizaterako. Dagoeneko neurozientziak berretsi ditu ondorio horiek guztiak. Hainbat herrialdetan urteak daramatzate Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza naturan ikasten. Naturak ikasketari dakartzkion onura guztiak kontuan izanda, arraroa beharko luke izan beste etapetan ez baliatzea, alor akademikoan soilik pentsatuko bagenu ere, aberasgarria delako.

Baso-eskolako formazioak ematen dituzu gaur egun. Zer transmititu nahi diezu hezitzaileei?

Lehenik eta behin baietz, egin dezaketela. Dauden lekuan daudela, posible dela. Has daitezela seguru sentitzen diren horrekin, eta pixkanaka. Seguru sentitzeko, garrantzitsua da formatzea, eta norbere buruari ez ezartzea sentitzen ez duen ezer. Hau

prozesu bat da, eta beste prozesu guztietan bezala, naturan hezten ikasi egiten da, eta behin seguru sentitzen hasten garenean, baliabide asko aurkituko ditugu, liburu interesgarriak, bideoak, webguneak, ekintzak egiteko ideiak... Bakoitzak pentsa dezala, "zer egiten zait errazagoa eta eskuragarriago?"; "zer ekintza egin ditzaket kanpoan?". Lehenik eta behin, has gaitezen gelatik eskola atarira ateratzen, naturara, basora edo mendira joan gabe, eta has gaitezen erritual txikiak sortzen pixkanaka. Ohitura txikiek gure gaitasunengan eta ikasleengan konfiantza sortzen lagunduko digute.

Hezitzailearen ongizatea bilatzen dut formazioetan, hezitzailea seguru sentitu behar baita haurrekin naturara aterako bada, bestela, ekintza estresagarria iruditzen bazaio, ez du merezi. Funtsezkoa da hezitzaileak, naturara atera nahi badu, bere burua seguru sentiaraziko duen hori egitea.

Bizipen pertsonalari garrantzi handia ematen diozu formazioan.

Teoria liburuetan dago eta oso garrantzitsua da, baina niretzat bizipen aberasgarriak izatea da benetan garrantzitsua, bizi dugun hori ongi transmitituko baitugu. Ikasketa esanguratsuari asko laguntzen dio bizipenak. Haurrek biziko duten hori norberak bizitzea garrantzitsua da hezkuntzan, eta zer esanik ez Baso-eskolako ereduari. Garrantzitsua da harriak ukitzea, makilak hartzea, naturak eskaintzen dizkigun aukerak bizitzea, atera eta begirada lantzea, eta behin landuta, ingurune guztian baliabideak ikusiko ditugu, zenbakiak, letrak, angeluak, patrioiak... Hori biziz ulertzen da, ez teoriatik.

LOMLOE aztertu ostean, Espainiako legeak dakarren curriculum berria Baso-eskolako ereduari eta pedagogia aktiboetatik gertuago dagoela diozu. Zer nabarmenduko zenuke?

Curriculum berria interpretatzen ari gara, eta paperaren gainean bederen, ikasleari ematen zaion protagonismoagatik, Baso-eskolako ereduari gertuago ikusten dugu. Adibidez, ikas-egoerek aukera gehiago ematen dizkigute ikasketa globalagoa

izan dadin, globaltasunean ikasten baitugu egunerokoan eta baita naturan ere, bizitzan ez baitaude arloak bereizita. Ikasleek naturan jasotzen duten esperientzia osoa da, aldiz, orain arte gelan oso ikuspegi partziala eskaini izan zaie eskuarki, eta ikasleentzat mundua arloka barneratzea eta ulertzea zailagoa izaten da. Proiektu zabalen bidez lan egiteko aukera ematen du basoak. Horrez gain, basoak ikasketa prozesuan oso baliagarria den faktore bat dakarkigu: sorpresa. Neurozientziak dio sorpresa, motibazioa bezala, oso mesedegarria dela ikasketa prozesuan.

Era berean, pedagogia berritzailetan ez dugu batez besteko ikaslea buruan, ikasle bakoitza baizik, eta ez diegu beraz, “hau da gaur ikastea dagokiguna” esaten eta ez diegu ordu bakoitzean haur guztiei gauza bera irakasten. Gure kasuan, haur bakoitzaren behar espezifikoak eta era guztietako aniztasunei erantzuteko baliabideak eskaintzen dizkigu basoak, baina horretarako, formatu egin behar dugu, hezitzaileek baliabide horiek ikus ditzaten. Errazenetik konplexuenera, sekuentzia guztiak barnebiltzen ditu basoak, eta horrek ikasketa prozesuei laguntzen die. Paperaren gainean bederen, curriculum berriak horri egiten dio lekua.

Nola ebaluatzen duzue Bosquesuelan?

Hori gai potoloa da. Lege honek ebaluazioa egiteko eredu ugariagoak egiten die leku, ez dira soilik alderdi jakinak ebaluatu behar, baita alderdi globalagoak ere, eta haurren auto-ebaluazioa eskatzen du. Haurrei eta helduei metaezagutza lana eskatzen die lege berriak, ikasi duen horrek norberari zer ekarpen egin dion aztertu beharko dute, eta hori naturako eskoletan dagoeneko egiten dugu. Horrez gain, curriculum berriak behaketa bidezko ebaluazioa dakar.

Gure kasuan, hainbat ebaluazio egiten ditugu. Cercedan gaudenez, Madrilgo komunitateak eskatzen digun ebaluazio ereduak ere jarraitu behar dugu, eta prozesuak eta edukiak behatzea eskatzen zaigu. Guk ez dugu ezezkorik jartzen, ez dugu jartzen haur batek zerbait ez

duela lortu, prozesuan egon daitekeela ulertzen baitugu, edo lortuta ere, ez digula guri erakutsi, edo agian hezitzaileak ez duela ikusi lorpen hori. Haur Hezkuntzan, haur askok ez dituzte dagoeneko gaitzitu dituzten prozesuen emaitzak erakusten, ez baita fitxa bat betetzea bezala. Haurra naturan behatzen dugunean, alderdi asko izan behar ditugu kontuan: begirada, jarrera, gorputza, inplikazioa eta abar, eta behaketak erakusten du haurra ikasketa asko ari dela bereganatzen. Lege berria aniztasun ugari erantzuteko baliatua behar dugu, eta ez soilik diagnostikatutako aniztasunei, baita ikasteko modu anitzei ere.

Dena den, guretzat ebaluazio garrantzitsuena familiekin hitz egiten duguna da, eta egiten ditugun behaketak. Egunero eta egunean zehar haurrak sarritan behatzen ditugu eta eskaintzen dieguna ea beren garapenerako egokia den behatzen dugu, edo aldaketak egin behar ditugun. Guk ditugun ratioekin oso behaketa zorrotzak egin ditzakegu. Behaketa-rekin batera, dokumentazioa ere oso garrantzitsua da. Oharrak hartzeaz gain, argazkiak egiten ditugu eta haurrek euren landa-egunerokoa daukate.

Familiekin egiten dituzuen bilera horietan, zer-nolako kezkek azaltzen dizkizute?

“Ongi prestatuak aterako al dira?”, “idazten eta irakurtzen ikasiko al dute?”... Gisa horretako kezkek ohikoak dira familia batzuen kasuan. Haurren prozesuak eta bizipenak aurreratzeko arriskua du, ordea, beldur horrek. Horregatik, Baso-eskolako hezitzaileak ongi jakin behar du dinamika bakoitza pedagogikoki oinarritzen. Basoan hurrekin egiten dugun guztiaren oinarria ongi ezagutu behar dugu, proposamen guztiek haurren garunetan sortzen dituzten ikasketak funtsatzeko gai izan behar du hezitzaileak. Gorputzaren garapenak ondoren gelan lagundu egin behar dio, baita arreta jartzen ere, eta ondorioz, ikasketaren garapenarekin harmonian egongo da, ikasketari lagunduko dion motrizitatea baita.

“Astero ateratzen baldin bagara, haurrak jakitun dira astean zehar espazio eta denbora hori izango dutela, eta ordenatzen laguntzen die, helduoi asteburua izango dugula jakiteak astea aurrera eramaten laguntzen digun moduan”

“Hezitzailearen ongizatea bilatzen dut formazioetan, hezitzailea seguru sentitu behar baita hurrekin naturara aterako bada, bestela, ekintza estresagarria iruditzen bazaio, ez du merezi”

ESPERIENTZIAKI

'MAGNET ERAKARRI' PROIEKTUA

Artea, tresna pedagogiko erakargarria

Magnet Erakarri hezkuntza proiektuak helburu sozialak erdiesten lagundu nahi die ikastetxeei metodologia berritzaileen bidez. Eusko Jaurlaritzak bultzaturiko proiektu pilotuetako bat Gasteizko Barrutia ikastolan egin dute hiru urtez, eta artea baliatu dute erreminta pedagogiko gisa, Artium Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoaren laguntzarekin.

Magnet edo iman eskolak AEBn sortu ziren, 70eko hamarkadan, eta, orduz geroztik, leku askotara zabaldu dira, hala nola Erresuma Batura, Errusiara, Kataluniara, eta baita Euskal Herrira ere, Eusko Jaurlaritzak ezarritako Magnet Erakarri proiektu pilotuaren bidez. Programa espezializatuak garatzeko aukera ematen die proiektu honek aniztasun sozial handiko ikastetxe publikoei, hain zuzen ere, egitasmoaren azken helburua “segregazioa gainditzea” baita. Metodologia berritzaileetan oinarritzen dira Magnet Erakarri proiektuko ikastetxeak, eta metodologia horiek inguruko erakunde esanguratsu baten eskutik garatu behar dituzte ikastetxean. Eusko Jaurlaritzak Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lau ikastetxetan ezarri zuen proiektu pilotu gisa Magnet Erakarri programa, duela lau urte, eta horietako bat Gasteizko Barrutia ikastola da. Proiektua gauzatzeko erremintatzat artea hartu du eskolak, eta hiru urtez Gasteizko Artium Euskal Herriko Arte Garaikidearen Euskal Museoa izan du bidelagun.



Monika Arratibel Barrutia ikastolako zuzendaria eta Andrea Urteaga Magnet Erakarriko arduraduna.

“Segregazioa gainditzea ez dago gure esku, baina, Magnet Erakarri proiektuaren bidez, beste helburu zoragarri asko lortu ditugu, lau urteko prozesu honetan”, adierazi du Barrutia ikastolako zuzendari Monika Arratibelek. “Artea egunerokoan eta naturaltasunez lantzea lortu dugu; ikasleak motibatuago dauzka; irakasleok irakatsi eta ikasteko

prozesuari buruzko begirada aldatu dugu, eta talde sentimendua indartu egin da”.

Artiumentzat ere, proiektu aberasgarria izan da Barrutia ikastolarekin elkarlanean aritzea, Hezkuntza eta Berrikuntza Proiektuen arduradun den Txaro Garaigortak adierazitakoaren arabera: “Kontua ez da izan artea arteagatik egitea; pentsamen-



Artium Arte Garaikideko Zentroaren eskutik egin ditu hiru urte Barrutia ikastolak Magnet Erakarri proiektuan.

du artistikoaren potentzialtasuna zabaldu nahi izan dugu, eta aberasgarria izan da. Ikusi ahal izan denez, pentsamendu artistikoa baliagarria da eskolako curriculumara garatzeko”.

Lehen urratsak pandemiaren has-tapenetan egin bazituzten ere, elkar ezagutuz ekin zioten proiektuari. Artiumeko kideek ikastolara bisita egin zuten, eta Barrutiakoek, berriz, museora, eta elkar ezagutzen eta trebatzen hasi ziren. “Barne hausnarketa egin zen, zer ahulezia eta zer indargune zeuden ikusteko, eta berrikuntza gaiei loturiko trebakuntzan, ahalmen handia zuten euren alde, bai eta hobetzeko eta proba egiteko gogo handia ere”, Garaigortaren esanetan. Arte hezkuntzan prestatu dira irakasle guztiak, lantegiak eta behaketak egin dituzte zikloz ziklo Artiumen; arte plastikoaren inguruan, baina baita harago ere, gorputzari, soinuari edo hitzari loturiko arte lantegiak egin zituzten. Aldiz, klaustroaren urteroko aldaketa izan da zailtasunetako bat: “Datozen irakasle berriak prestatu egin behar dira, eta proiektura erakarri”, adierazi du Barrutia ikastolako irakasle eta

Magnet Erakarriko arduradun den Andrea Urteagak.

Nitik gura

Aldaketa metodologiko handia ekarri du proiektuak, zuzendariaren iritziz: “Orain, artearen bidez, matematika lantzen dugu; artearen bidez, ingelesa lantzen dugu; gorputz hezkuntza... Begirada pedagogikoa aldatzera eraman gaitu Magnet Erakarri, eta proiektuan sakondu ahala, talde sentimendua indartu egin da. Denok batera joateak zer garrantzi duen ikusi dugu, bai ikasleei begira, baina baita irakasle taldeari begira ere; eta harago, familien artean eta eskolako komunitate osoaren artean. Talde lana eta talde lanak dituen balioak bultzatu nahi izan ditugu proiektu honekin”.

“Curriculumeko eduki guztiak eta kompetentzia guztiak lantzeko baliatu dugu artea —azaldu du Urteagak—. Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzako azken mailara arte, ikasgela egonkorra barne hartuta, maila bakoitzera egokitu dugu proiektua”. *Etorkizuna proiektatuz* egitasmoa jarri du horren adibide zuzendariak:

eskola osoa bildu zuen barnean proiektuak, eta ikusgai egon zen museoan. “‘Nolako Barrutia amesten dugu?’, galdetu genuen; ‘nolako ikasgela?’; ‘nolako ikastetxea?’; ‘nolako jolastokia?’, eta guztion artean, hainbat maketa egin genituen; batzuek, Kapla egurrezko xaflekin; bestek batzuek, medikuek eztarria begiratzeko erabiltzen dituzten makilatxoekin, eta LHko azken mailakoek, egurrezko benetako piezekin. Horretarako, Enzo Mari arkitektoaren autoeraketa proiektutik abiatuta, zenbakiak, neurriak eta eskalak barneratu behar izan zituzten praktikaren bidez, bakoitzak bere mailan”. Eta, ondoren, nola emaitzak hala prozesua, Artiumen erakutsi zituzten. Antonio Ballester artistarekin elkarlanean egin zuten erakusketa. Urrats garrantzitsua da erakustekoa: “Haurrentzat ez ezik, familientzat oso garrantzitsua izan da hurrek egindako lanak Artiumen ikustea. Gure familien egoera sozioekonomikoa kontuan izanik, ez da oso ohikoa Artium bigarren etxe gisa sentitzea, eta, beraz, are pozgarriagoa da ondorioa”, azaldu du Arratibelek.

ESPERIENTZIAK: 'MAGNET ERAKARRI' PROIEKTUA



Barrutiako ikasleak Yayoi Kusama artistaren obran inspiraturiko lanak egiten.

Harrotasunaz eta ahalduntzeaz gain, kide eta parte izatearen sentimenduak areagotu dira proiektuari esker, zuzendariaren iritziz: “‘Hau nik egin dut’ esatetik, ‘hau guk egin dugu’ esatera pasatu dira ikasleak. Erronka da, gure publikoa egunero ari delako berritzen, etorkin emari handiko ikastetxea baita Barrutia (gaur egun, 24 nazionalitatetako 356 haur ditu ikasgeletan). Baina, proiektu honekin, ikasle etorri berriak geureganatzea lortu dugu, lehen egunean ez bada bigarrenan. Ikasle guztiei baina, bereziki, ikasle etorri berriei euren lekua aurkitzen lagundu die arteak, haur guztiak ikusten baitute denek ekarpena baliozkoa dela lantegietan. Ona/txarra kontzeptuak alboratu ditugu; horretan hezi ditugu; ekarpen guztiak baliagarriak direla erakutsiz hezi ditugu. Gainera, etorri berriek, ahozko hizkuntzatik harago, gorputzez edo eskulanez adierazi ahal izan dute behar dutena. Horrek ongi sentiaraztea dakar, lekua aurkitzea, eta kide izatearen sentimendua areagotzea”.

Kide sentitzeak dakarren indarra argi ikusi zuen zuzendariak, Artiumek egindako proposamenari jarraituz eta Esther Ferrerren eta

“‘Hau nik egin dut’ esatetik, ‘hau guk egin dugu’ esatera pasatu dira ikasleak. Erronka da, gure publikoa egunero ari delako berritzen”

Monika Arratibel
Barrutia ikastolako zuzendaria

“Orain, proiektu edo unitate bakoitzaren abiapuntua artelan batek ezartzen du eta hortik, alor bakoitzari loturiko edukia edota kompetentzia garatzen da”

Andrea Urteaga
Magnet Erakarriko arduraduna

Jose Antonio Sistiagaren lanetatik abiatuta *Pentsatzeko leku bat* lantegian garatutako ekintzari esker: “Proiektu gisa eta ikusizko produktu gisa, ‘hau Barrutia da’ sentitu nuen: kartoi puska batzuk moztu genituen eskuarekin, kartoiari berari jarraituz, eta bakoitzak nahi genuen bezala margotu genuen egokitu zitzaigun zatia, kolore bakarrez, puntuka, koloreak nahasiz... Eta ondoren, puzzlea osatu behar genuen, hasieran zegoen bezala uzteko. Ez zen ariketa erraza izan; elkar ulertu behar genuen, eta elkarrekin joan, puzzle osoa osatzeko. Emaizta ikustean, ‘hau Barrutia da!’ sentitu genuen. Hainbeste koloretako puzzlean, Barrutiako kultura eta hizkuntza aniztasuna ikusi genituen; denok lotuta gaudela eta bakoitzak bere lekua daukala ikusi genuen”.

Artea, ikasleen motibagarri

Partaide izate hori, ikasleek ez ezik, familiek ere sentitu dutela nabarmendu du, gainera, zuzendariak: “Hasieratik eta ibilbide guztian zehar, familien parte hartzea handia izan da, eta familiak diogu, eta ez gurasoak, izeba-osabak eta aiton-amonak ere etorri baitira hona, eskolan dugun erakustaretoko artela-

nak ikustera, baina baita prozesuetan laguntzera ere”.

Akademikoki eta curriculumaren ikuspegitik begiratuta, ikasleen ikasteko gogoan Magnet Erakarrik onerako eragin duela ikusi dute irakasleek. Eragin du motibazioan: “Liburu batekin eskalak ikastea, adibidez, zail gerta dakieke hainbat ikasleri, baina, ikastetxearen maketa egin behar duela esanda eta kanpora atera, neurtu eta kalkuluak eginda, oso motibagarria da ikusten eta ukitzen duenari loturiko helburu bat edukitzea”, Urteagaren hitzetan.

Gela egonkorreko ikasleentzat ere artea oso motibagarria eta baliagarria dela ikusi ahal izan dute. Urteagak itsasoaren lanketa egin zuteneko proiektua ekarri du gogora, adibide gisa: “Azken helburua edo emaitza eskolako erakustaretoan jarriko genuen horma irudi bat zen, eta tutoreak eta ikasgelak horma irudi horren gainean egin zuten lan; baina, bitarte horretan, ikasleen autonomia eta emozioen hezkuntza landu ahal izan zituzten artearen bidez”.

Gisa horretan ikasleak partaide aktibo eta motibatu senti daitezten artea ikasteko prozesuetan txertatzeak irakasleei “lan erantsia” dakarkiela argi du Urteagak. “Liburu bati jarrai-

tzea errazagoa da, argi dago hori. Metodologia berritzeak inplikazio handia eskatzen die irakasleei; lana, antolaketa eta trebakuntza eskatzen die. Baina emaitzak ematen dituela ikusteak berak motibatu egiten ditu irakasleak, bide horri jarraitzeko”. Lan erantsi horregatik, hain zuzen ere, beharrezkoa da “gaian lidergoa hartuko duen irakaslearen rola”, Arratibelen aburuz; “lidergo parte-katua behar da”.

Hiru urtez eskutik helduta egin dute ibilbidea Artiumek eta Barrutiak, Eusko Jaurlaritzak bultzaturiko proiektu pilotua hiru urtekoa baitzen. Tarte horretan, proiektua simetrikoa izan da, hau da, ikastetxeak egiten zuenaren isla erakutsi du unean-unean Artiumek. Laugarren urte honetan, ikastolak bere kasa jarraituko du bidean aurrera. Proiektua gauzatzeko irakaslearen gidaritza ikastetxeak berak hartu du beregain, adibidez. “Laugarren urtean, lan guztia sistematizatzea etorri da. Artiumekin egindako lantegien eta trebakuntzen banku bat egin ondoren, hiru urteetan egindakoa programazioetan txertatu dugu”, azaldu du Arratibelek. Urteagak erantsi duenez, “orain, proiektu edo unitate bakoitzaren abiapuntua artelan batek

ezartzen du ikasgela bakoitzean, eta hortik, alor bakoitzari loturiko edukia edota kompetentzia garatzen da”. Batzuetan, ikastetxe guztiak aldi berean lantzen du egitasmo bat; beste batzuetan, zikloz ziklo edota ikasgelaz ikasgela egiten dira lantak. Horrez gain, ikastola osoak arte proiektua garatzen du elkarrekin, ostiraletako arte hezkuntzako saioetan. Horrela, ikastola osoak artista baten lana ezagutu ahal izan du; esate baterako, Yayoi Kusama, Sonia Delaunay, Maria Freire, Esther Ferrer eta gisa horretako artisten bizitzak eta lanak ezagutu dituzte haurrek.

Magnet Erakarri proiektutik beste ikastetxeetara zer esportatu daitezkeen galdetu diegunean, eta kontuan izanik ez dutela Artiumen bezalako zentrorik bidelagun izango, “ikastetxe osoa inplikatu duen lan bat egitera” gonbidatuko lituzke Arratibelek: “Ikastetxe guztiari (HHTik LHra eta ikasgela egonkorra barne) elkarrekin zerbait egitea proposatuko nioke, txikia bada ere. Baliagarri izango zaie talde sentimendua eta eskolako partaide izatearen sentimendua indartzeko; niretzat, zoragarria izan da hori egitea, eta hurrengo pausoak emateko motibagarria”.



Maria Freire artistaren obra landu zuten Barrutiako ikasle guztiak.

EKARPENAK I

DISKALKULIA

Diskalkulia: detekzioa eta esku-hartzea Lehen Hezkuntzan

Diskalkulia matematikarekin lotutako zenbait zailtasun izendatzeko erabiltzen den kontzeptua da; zehatzago esanda, zenbakikuntzarekin, kalkuluarekin eta buruketen ebazpenekin lotutako Ikaskuntzaren Zailtasun Espezifikoa. Zailtasun horiek deskribatzen dira artikulu honetan, eta, aldi berean, ikasgela barruan diskalkulia duten ikasleekin hartu daitezkeen hainbat neurri proposatzen dira.

Egungo gizarteak, aurrekari-rik gabeko prozesamendu-matematikoa menperatzea eskatzen du. Ordenagailuak, *Smartphone*ak eta osasun- eta finantza-informazioa erabiltzea dira zenbakizko prozesamendu arina eskatzen duten gaur egungo eskaera ugarietako batzuk (Price eta Ansari, 2013). Hala ere, azken hamarkadetan matematikari lotutako zailtasunak areagotzen ari dira ikasleriarren artean, Ikasleen Nazioarteko Ebaluaziorako Programak (PISAk) urtero erakusten duen moduan (Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa, 2019).

Matematika irakasteko eta ikas-teko prozesua zeregin konplexua da, batik bat irakasgaiaren berezko ezaugarriak direla eta. Horien artean, matematika-hizkuntza, pentsamendu logiko-deduktiboa eta edukien ikaskuntza piramidala edo hierarkikoa aurki daitezke (Carrillo, 2009). Hala ere, zailtasun orokor horiek alde batera utzita, ikasleen zati batek zailtasun erantsia du



IRATXE REDONDO
EHUko Bilakaeraren eta
Hezkuntzaren Psikologia
Saileko irakaslea



LEIRE CORONADO
Lehen Hezkuntzako
irakaslea



matematikari aurre egiteko orduan: diskalkulia, hots, zenbakikuntzarekin, kalkuluarekin eta buruketen ebazpenekin lotutako Ikaskuntzaren Zailtasun Espezifikoa.

Diskalkuliaren kontzeptualizazioa eta berezko zailtasunak

Diskalkulia terminoa latinetik eta grezieratik dator, grezierazko “dis-” aurrizkiak (txarra, zaila, mingarria edo aldatua) eta latinezko “calculia” terminoak (kalkulua) osatzen baitute. Gaur egun, Amerikako Psikiatria Elkarteak (APA, 2013) argitaratutako eta nazioartean oso zabalduta dagoen Buruko Nahasmenduen Diagnostiko eta Estatistikako Eskuliburuak (DSM-5) Ikaskuntzaren Nahasmendu Espezifikoa deiturikoen barnean jasotzen du diskalkulia.

Diskalkulia duten ikasleek adierazten dituzten zailtasunak, lau multzo nagusitan bildu daitezke: zenbakien zentzua, eragiketa aritmetikoen memorizazioa, kalkulu zuzena edo arina eta arrazoibide matematiko zuzena (APA, 2013).

Zenbakiaren zentzuari dago-kionez, diskalkulia duten ikasleek zailtasunak dituzte zenbakiak ulertzeko eta idazteko. Alde batetik, konplexua egiten zaie zenbakiak objektu edo balio errealekin lotzea.

Gauzak horrela, ikasleak ahoz kontatzen jakin dezake, zenbakien benetako esanahia ulertu gabe. Era berean, edozein zenbaki unitate txikiagoek osatzen dutela eta gainerako zenbakiekin erlazionatuta dagoela jakitea kostatzen zaie. Horrez gain, zenbakien idazketaren norabidearekin (eskuinetik ezkerre) problemak adierazten dituzte maiz, letrak idazten diren norabidearen kontra doalako (ezkerretik eskuinera). Diskalkulia duten ikasleek zailtasunak dituzte bereizketa hori ikasteko, eta, ondorioz, ez dute zenbakien zifren posizioaren esanahia ulertzen (González eta Álvarez, 1998).

Bestalde, ikasle horiek **eragiketa aritmetikoak memorizatzeko** arazoak izan ohi dituzte. Jakina denez, prozedura matematiko guztiek eragiketa aritmetiko desberdinak burutzea eskatzen dute (batuketa, kenketa, biderketa, etab.) eta horretarako, euren zeinuak eta egin beharrekoa memorizaturik izan behar ditugu. Diskalkulia duten pertsonak zailtasunak izaten dituzte bai eragiketa matematiko desberdinen prozesua buruz ikasteko, bai informazio hori berreskuratzeko (Castro, 2007). Hori dela eta, buruketak ebazteko orduan, estrategia edo mekanismo pobregoa erabiltzen

dituzte, hala nola erantzunak buruz ikastea edo ohikoa dena baino askoz urte gehiagoz atzamarrekin zenbatzea (Geary, 2017).

Kalkulu zuzenari edo arinari dagokionez, nabarmendu behar da kalkuluak egiterakoan, xehetasunak hartu behar direla kontuan, akatsik ez egiteko. Ildo horretan, esan bezala, ikasle horiek problemak izaten

Diskalkulia duten haurrek, buruketak ebazteko orduan, estrategia edo mekanismo pobregoa erabiltzen dituzte, hala nola erantzunak buruz ikastea edo ohikoa dena baino askoz urte gehiagoz atzamarrekin zenbatzea.

EKARPENAK: DISKALKULIA

Diskalkulia duten ikasleek problemak ebazteko hiru urratsetan huts egiteko joera dute: problema orokorra ulertzeko eta irudikatzeko orduan, problema aztertzeke orduan eta arrazoiketa matematikoa egiteke orduan.

Diskalkuliaren ondorio emozional nagusien artean, matematikarekiko antsietatea eta motibazio falta aipa daitezke.

dituzte zenbakien zifrak behar bezala idazteko edo eragiketen sinboloak identifikatzeko (Castro, 2007).

Oinarrizko lau eragiketetan zentratuz, Carrillok (2009) diskalkulia duten ikasleengan honako zailtasun hauek azaltzen ditu: batuketei dagokienez, zailtasunak zenbakien deskonposizioarekin hasten dira, normalean arazoak izaten baitituzte zenbaki jakin bat zenbaki txikiagoetan deskonposatzeko. Horrela, digitu bat baino gehiago dituzten zenbakien batuketak egiterakoan, emaitzak hamarrekota gainditzen duenean, eragiketa zenbaki-zutabe bakoitzak batuketa aske bat osatuko balu bezala egin ohi dute. Biderketei dagokienez, akats ohikoenak zenbakiak idaztearekin lotuta egoten dira, ikasleek unitateak ez dituztelako kontuan hartzen, hamarrekota eta ehunekoak. Bestalde, litekeena da ikasleek “bururakoa” ahaztea eta unitatearen zifra soilik idaztea. Alderantzizko eragiketei dagokienez, hau da, kenketari eta zatiketari dagokienez, aipatu behar da zailtasunak larriagotu egiten direla, eragiketa horiek ez baitira aurrekoak bezain mekanikoak, prozesu logiko bati jarraitzen baitiote.

Bukatzeko, jakina denez, **arrazoibide matematikoa** funtsezkoa

da espazioa eta denbora koordintatzeko eta problemak ebazteko (García et al., 2016). Diskalkulia duten ikasleek problemak ebazteko hiru urratsetan huts egiteko joera dute: problema orokorra ulertzeko eta irudikatzeko orduan, problema aztertzeke orduan eta arrazoiketa matematikoa egiteke orduan.

Ulermenari dagokionez, enuntziatua modu zehatzean edo abstraktuan aurkez daiteke. Bi kasuetan, azaldutako buruketaren ezaugarriak eta helburua ulertu beharko dira.

Buruketaren azterketan, ezinbestekoa izaten da bigarren mailako datuak alde batera uztea eta erantzun beharreko galdera aurkitzea. Kasu askotan, ikasle horiek zailtasunak dituzte datuak antolatzeke, problemaren esanahi globalarekin nahastu egiten direlako.

Azkenik, kontuan izan behar da arrazoibide matematikoa beharrezkoa dela problema ebazteke egingo diren eragiketak erabakitzeko. Kasu batzuetan, buruketaren alderdi guztiak kontuan hartzeke problemak izaten dituzte, eta, beste batzuetan, ikasleek ez dakite zer eragiketa egin behar duten emaitza lortzeke. Azken hori gertatzen denean, “konponketaren teoria” erabili ohi dute, hau da, eragiketa desegoki bat egiten dute, edo erantzuna asma-



tzen dute aurrean duten buruketa amaitzeko helburuarekin (Carrillo, 2009).

Diskalkuliaren ondorio akademikoak eta emozionalak

Diskalkuliaren ondorio emozional nagusien artean, matematikarekiko antsietatea eta motibazio falta aipa daitezke. Matematikarekiko antsietatea bizitza arruntean zein egoera akademikoan gertatzen diren tentsio- eta urduritasun-sentimenduekin erlazionatuta dago. Ansietate horrek izua, paranoia, pasibotasuna eta norberaren buruarekiko konfiantzarik eza eragiten ditu, matematiketan haien muga pertsonalera iritsi direla pentsararaziz. Hortaz, ikasle

horiek matematikarekiko pasibotasunez jokatzen dute, ezagutza matematikoak izatea sortzetikoa dela pentsatzen baitute, eta, horren ondorioz, ezin dutela ezer egin emaitzak hobetzeko (Lai, 2005). Horren guztiaren ondorioz, ikasle horietako askok eskola porrota izaten dute eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara iristen direnean, ikasketak uzteko arrisku egoera handiagoan egoten dira (Adelman eta Vogel, 1990).

Horrez gain, Ikasteko Zailtasun Espezifikoak dituzten ikasleek autokontzeptu eta autoestimu falta, bikoteekiko harreman-arazoak, eta jokabide- edo depresio-arazoak izateko aukera dutela frogatu da (Panadero 2019).

Esku-hartzean kontuan hartzeko orientabideak

Lehen Hezkuntzako irakasleek funtsezko zeregina dute diskalkuliarekin lotutako zailtasunak garaiz detektatzeko eta esku-hartze espezifiko eta egokia sustatzeko (Sousa et al., 2016). Lehen Hezkuntzako irakasleak aurkitzen duen zailtasun nagusietako bat diskalkulia Ikaskuntzako Zailtasun Orokor batekin nahastea da (Bernal, 2009).

Beraz, beste askoren artean, diskalkulia duten ikasleekin esku hartzea da egungo hezkuntza sistemak aurre egin beharreko erronketako bat. Ikasgela barruan, diskalkulia duten ikasleekin hartu beharreko neurri batzuk hurrengoak dira:

Ikasgela barruan hartu beharreko neurriak (Fuiza eta Fernández-en oinarritua, 2014)

- Eguneroko bizitzako objektuak/egoerak oinarritzat hartu sinboloak erabiltzen hasi baino lehenago. Matematikak ekintzarekin lotu, helburuak argi gera daitezzen. Adibidez, ikasgela barruan denda bat sor daiteke edo detektibeekin lotutako jolas bat planteatu...
- Esperientzia askotarikoak eskaini, askotariko material manipulagarriarekin, hala nola, txanponak, abakoak, polikuboak, erregletak, jolasak, etab.
- Problema irudikatu, grafikoki errepresentatu: marrazkiak, grafikokoak, eskemak, kontzeptu mapak etab. erabiliz, eskatzen dena ondo ulertzeko. Ahal den neurrian, hauek "zati edo parte" desberdinetan banatu.
- Buruketak egiteko orduan, ezinbestekoa izango da ikasleari problemen ulermena errazten dioten pauso batzuk jarraitzen irakastea, adibidez:
 - Buruketa hainbat alditan irakurri (3-4 alditan).
 - Ulertzen ez dena galdetu.
 - Buruketan agertzen den informazioa kolore desberdinekin bereizi; adibidez, urdinez pertsonaiak edo objektuak azpimarratuko dira; gorriz zenbakizko kopuruak eta, berdez, galdera.
 - Galdera ulertu den egiaztatzeko, galdera berridatzi.
 - Lortutako datuen marrazki bat egin.
 - Eskatzen dena egiteko erabili behar den operazioa pentsatu (batuketa, kenketa...).
 - Buruketa ebatzi.
 - Emaizta ondo dagoela egiaztatu dena berrirakurritu.
- Eragiketa matematiko bakoitza zergatik egin behar den azaldu. Horrela, garrantzitsua izango da eragiketa matematiko bakoitzaren (gehiketa, kenketa, biderketa eta zatiketa) erabilera errealiterama eramatea, baita eragiketen analogiak erabiltzea, hala nola, elkartu, ipini, kendu, atera, ezabatu, aldi askotan ipini, multzokatu, banatu, etab. Horretarako, adibidez, panelak jar daitezke gela barruan.
- Oso maiz praktikatu, baina aldi laburretan. Ikaskuntza esanguratsua izateko behar adina denbora utzi behar da.

EKARPENAK II

HEZKUNTZA AKORDIOA

Segregazioari aurre egiteko erronkak definitu dituzte Eusko Ikaskuntzak eta Hezkuntza Sailak

Duela urte eta erdi hasitako ibilbidean beste urrats bat egin dute Eusko Ikaskuntzak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak. 'Askotariko segregazioari nola erantzun hezkuntza sistematik? Ulermen partekatua eta erronkak kudeatzeko proposamenak' jardunaldia egin dute martxoan eta aurrera begira itun sozial zabal bat erdiesteko erronkak aurkeztu dituzte.



Identifikatuta eta azpimarratua dago XXI. mendeko euskal gizartearen erronka garrantzitsuenetako bat segregazioari aurre egitea izango dela, eta zeregin horretan hezkuntzak bere egitekoa duela ere bai. Horrexegatik hasi zen Eusko Ikaskuntza, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin lankidetzan, askotariko segregazioari hezkuntza sistematik nola erantzun dakioken hausnartzen 2021ean.

Hasteko, sinposio bat antolatu

zuten 2021eko urrian irakasleekin, adituekin, gizarte eragileekin eta instituzioekin. 2022an, gogoetan sakontzeko asmoz, bi foro parte-hartzaile burutu zituzten, eta han jasotako ekarpenekin osatuta aurkeztu dute *Segregazioaren ezaugarritze eta ulermen partekatua, erronkak kudeatzeko proposamenak* txostena.

Dokumentuak eskola segregazioaren definizio adostua biltzen du, honela definituz: "Lurralde eta hezkuntza maila eta etapa bereko

ikastetxeen arteko ikasleen banaketa desberdina eta desorekatua, euren lurralde-jatorri, genero, kultura, hezkuntza, gaitasuna, etnia, erlijioa edo, batik bat, maila sozioekonomikoaren arabera".

Eskola segregazioaren kausa nagusia eredu sozio-ekonomikoarekin lotuta dagoela ondorioztatzen da txostenean, eta eskola segregazioak ikasleen hezkuntza aukera berdintasuna hausten duela eta desberdinkeria sortzen duela. Egoera horretan, eskola segregazioa enpirikoki neurtu behar dela ikusten da eta egoeraren tamaina balioesteko indizeak behar direla azpimarratzen da txostenean. Behin hori eginda, garbi ikusten da segregazioari aurre egiteko itun sozial zabala eta barneratzailea osatu behar dela, non administrazioak eta jendarteak estrategia orokor bat abiatu beharko duten, eta euskarak berebiziko garrantzia izango duen kohesiorako giltzarri modura.

Horretara iristeko, bost erronka identifikatu dituzte eta baita bakoitza kudeatzeko proposamenak ere.



Askotariko segregazioari nola erantzun hezkuntza sistematik? jardunaldiaren antolatzaileak eta parte-hartzaileak. Argazkiak: Eusko Ikaskuntza.

Txostenak erronkak kudeatzeko biltzen dituen proposamenak:

1. Jendartearen inplikazioa

Eskola segregazioa amaitu nahi duen edota kulturartekotasuna lehenetsun gisa hartzen duen hezkuntza sistema eraikitzeak agenda politikoan toki zabala hartu behar du, eta lan trinko eta espezifikoa egin behar da komunikabideetan, udal mailako herrigintzan eta hezkuntza ez-formaleko elkarte eta eragileekin, gaiak bere espazioa izan dezan.

2. Lidergo politiko partekatua

Gobernua eta klase politikoaren jardunak ausarta izan behar du, eskola segregazioa kentzera zuzendutako erabakiak hartzeko eta hezkuntza sistema berria erdiesteko. Eskola segregazioaren eskumenak Hezkuntza Sailak dituzenez, berak izan behar du lankidetzaren eremua sustatzeko, sortzeko eta koordinatzeko lidertza.

Publikotasunaren definizio berria behar da eta titulartasunetik harago ulertu behar da. Sistemak eta sistematik kanpo nor geratzen den zorrozki ebaluatu behar da eta horren arabera finantzazioa eta funts publikoak erabaki, sareen arteko lehia gainditzeko. Publikotasuna definitzeko orduan ikastetxe guztiek, publikoek zein itunpekoek, hezkuntza sistema inklusiboagoa, hots, egiazko zerbitzu publikoa, bermatzeko baldintza berriak ezarri behar dira. Horrek plangintza eta lan egiteko molde berriak eskatuko ditu.

3. Kulturartekotasuna

Hezkuntza sistemak kulturartekotasuna zer den definitu behar du, zeren kontzeptu horretan biltzen baitira eskola segregazioari aurre egiteko proiektu pedagogikoaren gakoak. Hezkuntza sisteman euskara eta euskal kultura kohesiorako tresna bihurtzeko testuingurua eraiki behar da, eta horretarako identitatearen gaineko hausnarketa ere egin behar da, anekdotatik eta folkloretik harago. Euskara irakasteko eta euskalduntzeko estrategiak martxan ipini eta bermatu behar dira.

Era berean, ikastetxeetan antolatzeko eta baliabideak kudeatzeko mekanismo berriak ezarri behar dira. Ikastetxeek autonomia izan behar dute daukaten errealitatearen aurrean diagnostiko zorrotza egiteko eta handik eratorritako proiektua eta kudeaketa plana definitu behar dituzte.

4. Formakuntza

Jarrera pertsonalen azterketa kritikoa egitea beharrezkoa da. Bidelaguntza soziohezitzailea eta komunitarioa behar da. Gaiaren inguruko ezagutzan sakontzea komeni da eta horretan unibertsitateak funtsezkoak dira.

5. Tokian tokiko gobernantza partekatua

Udalek tokian tokiko erabakiak hartzeko aukera izan beharko lukete hezkuntza formal zein ez-formalari dagokionez. Auzoen eta herrien topaguneak sortzea komeni da, eskola bakoitzak bere hezkuntza proiektua komunitateko proiektu gisa garatzeko. Eskola kokatua dagoen jendarte-ingurune osoari lotutako lankidetzaren lortzea da erronka nagusia.

Segregazioaren ezaugarritze eta ulermen partekatua: erronkak kudeatzeko proposamenak txostena osorik ikusgai www.euskoikaskuntza.eus-en.

GRADU ONDOKO BI URTEKO FORMAZIOA

LEHEN HEZKUNTZA

Badator eraldaketa Lehen Hezkuntzara!

Ikastetxe askotan Haur Hezkuntzako paradigma aldatu egin da, eta haur horiek badatoz goraka... Lehen Hezkuntzan ere benetako premia dago haurraren jakin-minari eta motibazioari erantzungo dioten ikaskuntza prozesuak abian jartzeko. Horretarako, eta benetan konpetentzietan sakontzeko, bidelagun izango den hezitzaile gogoetatsuak tresnak behar ditu.



Informazioa eta matrikulazioa:

ERALDATZEN

▪ Nori zuzendua?

- Lehen Hezkuntzako hezitzaile gogoetatsuei, eraldaketan hasiak edo hasteko gogoz daudenei. Baita aholkulari, zuzendari, ikasketa-buru edota arduradun pedagogikoei ere.

▪ Edukiak:

- Tutore gogoetatsuaren rola.
- 6-12 adin tarteko haurren ezaugarriak.
- Hezkuntza proiektuaren prozesua.
- Espazioen antolaketa.
- Ebaluazio hezigarria.
- Ikaste-prozesuak ulertzen (ikuspegi sozio-erakitzailea, psikologia kognitiboa eta neurozientziaren ekarpenak) .
- Pedagogia sistemikoa.
- Oinarrizko kompetentzietan eta arlokakoetan sakontzea...

▪ Formatzaileak:

- Aritz Larreta (arduradun pedagogikoa)
- Alvaro Beñaran (formazio pertsonala)
- Ane Ablanedo
- Nora Salbotx
- Irene Lopez-Goñi
- David Castrillo
- Elena Laiz
- Marisol Uria
- Neus Sanmartí
- Leire Arana
- Amaia Arroyo
- ...

▪ Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak homologatutako formazioa da.

▪ Matrikulazioa:

Apirilaren 3tik maiatzaren 31ra.



Mendigoiti ikastetxe publikora bisita.



1. promozioiko talde argazkia.

AHALDUNTZE ESKOLA

MURRIZTU, BERRERABILI ETA BIRZIKLATU

Lehenik, murriztu

Birziklatzeak duen garrantzia inork gutxik jarriko du zalantzan gaur egun, baina bada birziklatzea baino garrantzitsuagoa den ekintzarik: murriztea, hain zuzen ere. Murriztu, berrerabili eta birziklatu. Hori izango litzateke sortzen dugun zaborra kudeatzeko ordena egokia, baina beti ere ideia hau garbi izanda: hondakinik onena sortzen ez dena da.

Haur Hezkuntzatik Batxilergoraino eta Lanbide Heziketan ere lantzen dituzte hondakinak kudeatzeko programak Cristina Enea Fundazioan. Mateo Regla, Cristina Enea Fundazioko ingurumen teknikaria, sortzen dugun zaborra murrizteak duen garrantziaz mintzatu da.

Cristina Enea Fundazioak zaborraren kudeaketarekin lotutako hainbat egitasmo bultzatzen ditu. Zein dira, eta zer helburu dute?

Ikastetxeetan, bi egitasmo bultzatzen ditugu: *Eskolan konposta* eta *ONDakin* izenekoak. *Eskolan konposta* programaren helburu nagusia eskoletan sortzen diren hondakin organikoei bigarren bizitza ematea da. Konpost-ontzia jartzen dugu eskoletan, eta ikasleak dira horren arduradunak. Prozesu guztia ikusten dute, hasieratik amaierara: elikagaiak hondakin nola bihurtzen diren ikusten dute, eta ondoren, hondakin horiek ongarri nola bihurtzen diren. Izan ere, parte hartzen duten ikastetxe gehienek baratzea izaten dute, eta baratzea ongarritzeko erabiltzen dute konposta. Beraz, ikasleek prozesu osoa eta zikloa

nola ixten den ikusten dute.

ONDakin programarekin, berriz, antzekoa egiten dugu, baina hondakin organikoetan zentratu beharrean, gainerako hondakinekin aritzen gara. Hondakin murrizketan eta birziklapenean sakontzea da helburua. Jasagarritasunaren alorrean pausoak eman nahi ditugu, ikasleak benetan kontziente izango diren eta sentsibilizatuta egongo

diren etorkizuneko hiritarrak izan daitezten.

Kasu horretan, hainbat ontzi jartzen dituzue ikastetxeetan?

Bai. Ikastetxera joaten gara, eta diagnostikoa egiten dugu, haien beharrak, gabeziak eta zailtasunak identifikatzeko. Ondoren, behar fisikoak eta materialak asetzeko hornitze-prozesua egiten dugu.





Normalean, ikastetxeek bi programetan batera parte hartzen dute, bata bestearekin lotzen saiatzen baikara beti.

Asko hitz egiten da birziklatzearen eta berrerabiltzearen beharraz. Baina lehen pausoa murriztea da, ezta?

Gaur egungo gizartearen ibilbidea ikusita, “erosi-bota-erosi” gurpiletik atera behar dugula eta egoerari aurre egin behar zaiola ikusten dugu. Ulertzen dugu birziklatzea baino, lehen pausoa murriztea dela, eta ikasleekin alderdi hori sakonki lantzen saiatzen gara. Horregatik ematen diogu halako garrantzia *Eskolan konposta* egitasmoari, ulertzen dugulako hondakin organikoak ez direla hondakin hutsak, ondoren lurrarentzako ongarri bihurtzen direlako. Eta erabilera bakarreko gailuen edo lehengaien kasuan, ordezkoa izaten dutela eta horien erabilera murriztea garrantzitsua dela azpimarratzen dugu. Erabilera bakarra duena eta murriztu ezin dena birziklatu behar dela esaten diegu, baina, lehenik, ahal dela, murriztu egin behar dugula.

Munduak hartu duen bidea ez dela

jasangarria eta egoerari aurre egin behar diogula azpimarratzen dugu beti. Izan ere, norbanakook hasi behar dugu murrizten edota hainbat tresna eta ondasun berrerabiltzen. Agintariei neurriak har ditzaten eskatzea ongi dago, baina geuk ere ardura dugu.

Hainbat koloretako edukiontzia ikusten ditugu kalean, baina horietara botatzen ditugunak baino askoz ere gauza gehiago birzikla daitezke. Horren gaineko kontzientziarik ba al da?

Belaunaldi berriek oso ongi dakite zaborra nola sailkatu behar duten. Helduek baino gehiago dakite gaiari buruz.

Kontzientzia maila handitzen ari dela esan nahi du horrek, ezta?

Haurrek gaia ezagutzen badute gurasoek transmititu dietelako da... Bai. Baina, askotan, haurrek gurasoek baino gehiago jakiten dute. Hezkuntza formalean egiten den lanketak eragin handia du. Haur askok automatikoki birziklatzen dute, eta zalantza dutenean galde-tu egiten dute. Niri iruditzen zait helduok baino askoz ere arduratsua-

goak direla. Hondakinen gaiarekin, behintzat, hala da.

Badira birziklatu edo berrerabili ezin daitezkeen hondakinak. Zer egin horiekin? Zein da alternatiba?

Alternatiba argia da: birziklatzeko aukerarik ematen ez duten material horietatik, ia guztiek dute berrerabil daitezkeen ordezkoen bat. Eta horiek erabiliz gero, hondakin gutxi joango lirateke errefusaren ontzira. Garrantzitsuena murriztea eta berrerabiltzea da, eta birziklatzea azken pausoa da. Errefusera doan bakarra hautsa, zigarrokinak eta puskatutako edalontziak eta platerak dira. Gainerako guztiak ordezkoa du, edo berrerabil liteke. Plastikozko jostailuak normalean ezin dira birziklatu, kostua altua izaten delako, baina horien ondoan, adibidez, badago beste aukera bat: egurrezko jostailuak.

Hondakinik onena sortzen ez dena da. Hori da Cristina Enea Fundaziotik azpimarratzen dugun ideia. Murriztu ezin badaiteke, berrerabili, eta berrerabili ezin baldin bada, birziklatu. Gauzak ongi eginez gero, birzikla ezina den errefusa oso gutxi izango da.

GALDEIDAZU

ESKOLAK BAKARRIK EZIN BADU... ZER BEHAR DU ESKOLAZ KANPO?

Haur edo nerabe baten garapen pertsonalaren ia edozein alderdiri buruz aritzeko balio dezake izenburuak. Artikulu honetan, ordea, 16 urte bitarteko ikasleak euskal hiztun osatuagoak bilakatzen laguntzeko egin beharko genukeenari helduko diogu (Udaltopeko¹ 2022ko edizioan landutakoa oinarri).

Aspaldikoa da “Eskola hiztun bila” esaldia. Are gehiago, esaldi horren pean garatu dira hainbat programa, jardunaldi eta ikerketa. Erreferentziazkoa ere izan zen bere garaian (30 urte baino gehiago dira) izen berarekin Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuak argitaratu zuen liburua². Bertan jasotako informazio mamitsu ugariren artean, argigarria izan zen 8 urteko neska-mutikoen artean eskola-orduak (zehazki gelako orduak) urteko esna-orduen artean zein proportzio betetzen zuten kuantifikatzeko egindako ariketa. Gela, D ereduko ikasgela zenean, gelako “euskarazko orduak” urte osoko esna-orduen % 14 zirela ondorioztatu zuten, B ereduko ikasgelen kasuan % 8 inguru eta A eredukoenean, berriz, % 4, gorabeherak gorabehera.



IÑAKI ARRUTI
Gipuzkoako Foru Aldundiko
Hizkuntza indarberritzeko
proiektu estrategikoen
arduraduna



Zenbakien dantzan lokaztu nahi gabe, azpimarragarriena da nahi-ko adierazgarria izan zela gelak (eta ondorioz gelako euskarazko jardunak) haurraren errealitatean (hizkuntza-errealitatean) zuen muga bistaratzea. Lanean bertan aipatzen da eskolaren hizkuntza garrantzia ez dela zenbaketa horretara mugatzen, eta badaudela beste hainbat faktore (gelako hizkuntza elkarrekin-tzaren nolakoa edo irakasleen eta eskola-lagunen euskara-maila kasu) eskolako hizkuntzen erabilerran eragiten dutenak.

Harrezkerotzik gauza asko aldatu dira gizartean, eskolan, gelan eta gutako bakoitzean, baina ondorio aski partekatua dela esango nuke, hizkuntza gutxitu batean hiztun osoak osatzeko, gure kasuan euskal hiztunak osatzeko, euskaraz eskolatzea ezinbestekoa eta ez-nahikoa dela, aldi berean. Alegia, ondorio hori, “eskolak bakarrik ezin du” leloan bildu ohi dugun hori³.

Eskolak bakarrik ezin duela esateak ez du esan nahi eskolak zereginik ez duenik egiten duen hori hobeto egiteko⁴. Berariaz, eskola barrukoak izan ohi dituzte eztabai-dagai eta langai hezkuntzako era-

¹ Udaltop Euskal Herri osoko udaletako euskara zerbitzuen topaketak dira. <https://www.udaltop.eus/>

² *Eskola hiztun bila*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1991.

³ Gai hori 2022ko Udaltop jardunaldietan bi ponentzia hauetan dago landua:

a) BIAIN, I. eta IBARRETXE, J., (2022). *Zer eta nola egin behar dugu eskolan gure ikasleak euskaraz hobeto eta gehiago egin dezaten? Zein dira gako nagusiak?*

b) SUBERBIOLA, P., (2022). *Eskolaz kanpo, zer eta nola egin behar dugu hobeto, hiztun hobek sortzeko?*

⁴ Gai hori 2022ko Udaltop jardunaldietan bi ponentzia hauetan dago landua:

gile gehienek. Udaletako euskara teknikari askoren ikuspegia izan da, berriz, eskola barruan lanak ahalik eta ondoen eginda ere (D ereduaren izan, euskararen ardaztutako eredu eleanitza izan...), egoera minorizatu dagoen hizkuntza batek hiztun osoak sortzeko ezinbestekoa duela hiztun horiei habitat linguistiko bat ematea, eskolaz gain beste eremu batzuk ere izango dituen eta nahikoa indar emango diona hizkuntza horretan ere nahikotasun-maila batetik gora sozializatzeko. Eta hortik sortzen da galdera berria:

Zein sozializatzere-eremu gehituko diogu eskolari?

Bistakoa da bakoitza bizi den (bakoitzari bizitza ematen dion!) ingurunearen arabera dela hizkuntza batean edota besteetan hiztun horrek egingo duen bilakera, hizkuntza sozializazioa, alegia. Horiek horrela, mutur batean eduki genezake udalerrri euskaldun bateko familia euskaldun batean jaio eta bizi den haur bat, sozializatzere-eremu (ia) guztiak euskaraz bizitzen dituen (familia, eskola, lagunak, kalea...) eta, beste muturrean, herri oso erdaldundu bateko familia erdaldundu batean jaio eta bizi den haur bat, alderantziz, ia sozializatzere-

eremu guztiak erderetan bizitzen dituen.

Dena den, kasu partikularretatik urrunduz, euskaraz eskolatutako haurrei lehentasunez eskaini behar-ko geniekeen eremua hautatzen laguntzeko bi izan daitezke irizpide nagusiak:

- a) Harreman instituzionalizatuak direnetatik hasia.
- b) Udalerrian (edo eskualdean) antolatzen direnetatik hasia.

Beste era batera esateko, nerabeak lagunartean on-line dauden jolas, aplikazio edo sare sozialetan dihardutenean sortzen den hizkuntza-harremana oso izan daiteke esanguratsua eurentzat (kuantitatiboki eta kualitatiboki). Hala ere, hor eragitea ia bideraezina izan daiteke adin-tarte horretan hizkuntza politika egoki bat egin nahi dugun erakundeentzat, bereziki udalerrri mailan, izan erakunde publikoak zein gizarte izaerakoak.

Logikoa dirudi, beraz, **erakunde publikoek, zuzenean edo zeharka, haur eta nerabeentzat antolatzen edo antolatzen laguntzen dituzten eta udalerrian bertan gauzatzen diren jarduerak horiek lehenestea.**

Logika soziolinguistiko berritua
Euskarazko sozializatzere-eremua

Belaunaldi berrietako haurrak eta nerabeak euskal hiztun osatuak izan daitezten, eskola-orduz kanpoko jarduerak guztiak euskaraz eginez osatzea komeni/behar da.

soilik eskola (edo gela) izango ez duen logika horren baitan, beraz, hainbat egoera gerta daitezke, mugatuenetik osatuenera, honela labur daitezkeenak:

1. Euskarazko irakaskuntza + eskola-orduz kanpo berariaz sortutako jardueraren bat.
2. Euskarazko irakaskuntza + eskola-orduz kanpoko udalerriko jarduerak guztiak euskarazko arnasgune sozio-funtzionala osatzea.

Esan daiteke, neurri batean behintzat, lehendabiziko molde hori bilatu eta neurri handi batean lortu ere egin dela azken urte hauetan



a) BIAIN, I. eta IBARRETXE J. (2022). Zer eta nola egin behar dugu eskolan gure ikasleek euskaraz hobeto eta gehiago egin dezaten? Zein dira gako nagusiak?

b) AIRE, X., (2022). Ipar euskal herrian haur eta nerabeen euskarazko errealitatea hobetzeko gakoak.

Hurrek ahal dute eta komeni zaie, eta guk, heldu arduradunok ere, ahal dugu eta komeni zaigu.

guztietan Euskal Herriko udalerrri gehienetan egin diren hizkuntza politiken ondorio.

Udaltope jardunaldien ingurumarian proposatu dugun logika berriak, berriz, lehendabizikotik bigarreneko jauzi hori emateko garaia dela eta aukerak ditugula jarri nahi izan du mahai gainean. Alegia, ulertzea belaunaldi berrieta-ko haur eta nerabeak euskal hiztun osatuak izan daitezen, euskarazko ekosistema bat behar dutela eta hori, gutxienez, irakaskuntza eta udalerrian gauzatzen diren eskola-orduz kanpoko jarduerak guztiak euskaraz eginez osatzea komeni/ behar dela.

Baldintzak eta jauziak

Jauziak emateko, ordea, baldintzak ere behar izaten dira. Eta horri begiratuta, bi egoera aski desberdin ikusi dira. Lehendabizikoa, Euskal Autonomia Erkidegoan dagoena, zeinean ezaugarri bereizgarria den 16 urte bitarteko haur eta nerabe (ia) guztiek ulertzen dutela euskaraz; eta bigarrena, berriz, Nafarroakoa eta Ipar Euskal Herrikoa, zeinetan ez den ezaugarri hori betetzen modu orokortu batean.

Ikuspegi horretatik begiratuta, EAerako jauzi bat ematea izan dugu langai, eta jauzi horri bi ezaugarri atxiki zaizkio:

1. Udalerrietan antolatzen diren eskola-orduz kanpoko jarduerak euskara ardatz izango duen eremu sozio-funtzional bilakatzeko estrategia abiatzea, eta, horretarako, sustapen-neurriez harago, lege bidezko heldulekua lantzea (EAEn lantzen ari den Hezkuntza Lege berrirako proposamena jasotzen da Udaltopen landutako beste ponentzia batean).⁵
2. Eskola-orduz kanpoko jarduerak euskalduntzeko tresnak sistematizatzea, ekintza eta egitasmo solteetatik harago, udalerrri bateko eskola-orduz kanpoko jardueren eremu horretan, bere osotasunean, esku-hartzeko.

Aldiz, Nafarroan zein Ipar Euskal Herrian, jauzi hori egiteko baldintzak gertatzen ez direnean, urrats edo pauso txikiagoak ematea da zentzuzkoena, nola ez, bakoitzak duen errealitateak abiatuta eta sarri euskaratik pentsatutako egitasmoak berariaz eraikiz.

Ahal dute eta komeni zaie

Udalerrian antolatzen diren eskola-orduz kanpoko jarduerak euskaraz izateko ikuspegi soziolinguistikoko hori belaunaldi berriek dituzten bi ezaugarritan oinarritu daiteke:

1. Ahal dute. Alegia, (ia) denek ulertzen dute euskaraz.
2. Komeni zaie. Alegia, eskola-orduz kanpoko erabilera ez-formalak eskolak berak soilik eman ezin duen hori emango dielako (kuantitatiboki eta kualitatiboki). Zenbat eta ingurune erdaldunagoa izan, orduan eta handiagoa komenentzia.

Esango nuke adostasun tekniko handia dagoela arestian aipatutako oinarri horien gainean eta adostasun tekniko hori adostasun soziopolitiko (guraso, alderdi, sindikatu...) ere bihur genezakeela aipatu dugun

jauzi hori emateko. Hurrek ahal dute eta komeni zaie, eta guk, heldu arduradunok ere, ahal dugu eta komeni zaigu.

Esku-hartze berriak

Horretarako, euskal hiztun osatua-koak lortzeak ikuspegi soziolinguistikoko berritua eta integralagoa eskatzen duen moduan, hori bilatu eta sustatu nahi duten erakundeen artean ere antolaketa “ekosistemi-koagoa” osatzea eskatzen duela dirudi (gobernutik hasi eta udalerrri mailaraino).

Udalerrri bateko eskola-orduz kanpoko jarduerak, laburbilduta, hiru erakunde motek antolatu ohi dituzte: Udalak berak, ikastetxeek eta beste eragile sozialek (elkar-tee) eta pribatuek. Horietako bakoitzak hainbat eta desberdinak diren eskumenak eta tresnak dituzte (irizpideak ezartzea, kontratazioetan klausulak jartzea, diru-laguntzetan baldintzak, sentsibilizazio-lana egitea...) eta, tokian tokiko errealitateari atxikiz, bakoitzean egoiak diren eran erabili behar dira. Zeregin horretan lagungarri izan daitekeelakoan, Udaltopiko 2022ko edizioan esku hartzeko gidalerroen proposamen bat osatu dugu.⁶

Horrek guztiak eraman beharko gintuzke, gela gisa, eskola-orduz kanpoko jarduerak ere euskararen erabilera trinkoko eremuak bilakatzera. Eta horretarako, irakasleak bezala, jardueretako hezitzaileak ahobizi izatera, ulermena ziurtatuta dagoen egoera guztietan euskarazko jardunari eutsiz eta eraginez.

Ertz gehiago baditu gaiak, eta eskola-orduz kanpoko jardueraz gain, haurren eta nerabeen (eta gainerakoon) hizkuntza-errealitateak ere ez dira, urrutitik ere, hor bukatzen. Hala ere, eskolan hasitako lanei jarraipena (molde berrituan) hortik ematea izan daiteke zentzudunena. Izan ere, hori lortu ezean, gainerakoak lortzea zailagoa eta sinesgaitzagoa dirudi.

⁵ URRUTIA, I., AMUNDARAIN, J. eta ARRUTI I., (2022) *Arautu daiteke edota komeni da 16 urte bitartekoentzat udalerrian egiten diren eskola-orduz kanpoko jarduerak guztiak euskaraz izan daitezen? Baiezkotan, nola?*

⁶ Udaltop 2022. Udaletarako zenbait gidalerro eskola-orduz kanpoko jardueretan eskola-orduz kanpoko jardueretan euskararen erabilera indartzeko.

ARGITALPENAK



PANTAIEN GARAIPENA

Iñigo Martínez Peña

ELKAR

Olatz Mitxelenaren hitzaurreak argi azaltzen du liburuaren nondik norakoa: “Garai guztiek dituzte beren argi-ilunak. Hauxe da guri egokitu zaiguna. Gakoa begirada aztertzea da, eta aldatzea: nola egin bizigarriago bizi dugun mundu hau? Nola lortu komunitatearen indarra?”.



AFALTZERA ETORRI ZEN TIGREA

Steve Smallman – Joëlle Dreidemy

DENON ARTEAN

Otso, Erregosi eta Tortilla lagunek tigrekume bat aurkitu dute. Tigre txiki, polit eta iletsu bat topatu dute. “Etxerako gorde dezakegu? –erregutu du Erregosik– Besarkada bat besterik ez du nahi!”. Baina tigrekumeak, besarkadak jasotzeko gogoia baino, plan bat du, plan maltzurra!



EGUN EURITSU ETA LORETSU BATEAN

Carme Solé Vendrell

KALANDRAKA-PAMIELA

Egileak berak dioenez, Veneziaara egindako bidaia batean du jatorria liburuak. Han zela, haur baten irudiak atentzioa eman zion, aterkia irekita zuen eta eskuan lore-sorta bat. Horrela sortu zen album hau, testu gutxirekin osatua eta tonu poetikoz egina. Loreek askotariko egoerak sortuko dituzte.



27 EGUNEZ JIRA ETA BUELTA

Irati Garmendia – Ane Arzelus

EREIN

Ilargiak 27 egunetan, bueltaka egiten duen bidaia azaltzen du liburuak. Ilberitik ilbetera, ilbeheratik ilgorara, hogeita zazpi eguneko bira, eta tartean bion arteko sekretu esanezina. Idazle izateaz gain, Haur Hezkuntzako irakasle ere bada Garmendia. Ane Arzelusenak dira ilustrazioak.



JAKIN 254

Hainbaten artean

JAKIN

Xipri Arbelbideri egin dio elkarriketa Jose Luis Aizpuruk *Jakin* aldizkariaren 254. alean. Gai nagusia berriz, Karmele Artetxek idatzitako artikuluak osatzen du: *Euskal hezkuntzan ahaztutako auzo-ikastoleta maistrak*. Eta Maialen Akizu eta Joanes Igeregi aritu dira *Egunen gurpilean*.



GALTZAGORRIAK DABILTZA ETXEAN

Xabier Olaso – Manu Ortega

IBAZABAL

Ordu txikitari idazten ari zela, lo seko gelditu zen Xabier. Ahots batzuek esnatu zuten bat-batean. Begiak ireki, eta lau galtzagorri ikusi zituen. Langile prestuak ziren denak, eta buru-belarri lagundu zioten Xabierri hainbat lan egiten. Hauxe duzue galtzagorrien kontaktuzun dibertigarria.

PROPOSAMENA

Txindokiko itzala

Abentura mendiaren gerizpean

Aralar mendizerraren magalean, Txindoki mendiaren babesean dago Txindokiko itzala izeneko abentura parkea. Ikaskideekin edota familiarekin jolasteko eta gozatzeko leku aparta da eta hainbat jarduera egin litezke bertan. Tirolina, orientazio proba eta arku-tiroa dira hurrek eta gazteek gustuko izaten dituztenak.

Abaltzisketako Larraitz auzoan dago Txindokiko itzala abentura parkea, izenak berak dioen moduan Txindoki mendiaren gerizan. Jolasaren bidez, naturaz gozatuz, natura errespetatzen ikasten dute bertaratzen direnek. Julen Goia Txindokiko itzala parkeko arduradunak ikastetxeentzat nagusiki hiru jarduera antolatzen dituztela aipatu du: “Ikastetxeei eskaintzen dizkiegun jarduerak abentura parkea, orientazio proba eta arku-tiroa dira. Orientazio proban gustura ibiltzen dira. Larraitz auzoan zehar balizak jarrita daude eta altxorren bila moduko jolasa bihurtzen da haurrentzat eta gaztetxoentzat. Mapa eta iparrorratza ematen dizkiegu eta haiek osatu behar dute ibilbidea”. Aurrez eskolan orientazioa apur bat lantzeko eskatzen diete proba egin nahi dutenei eta ondoren, eskolan ikusitakoa praktikan jartzeko aukera izaten dute ikasleek.

“Arku-tiroa ere gustuko izaten dute. Jarduera laburragoa izaten da, hiruzpalau diana jartzen ditugu, teknika azaltzen diegu eta arkuare-



kin tiro egiten dute. Zerbait berezia denez eta egunerokotasunean egin ezin dutenez, gustura aritzen dira”, azaldu du Goiak.

Bi zirkuitu aukeran

Zuhaitz parkean bi zirkuitu daude aukeran eta biek dituzte zubi nepal-darrak, tirolinak edota kulunkak. Alde batetik, zirkuitu txikia dago, Basajaun izeneko. 3 eta 8 urte bi-

tarteko haurrentzat eta 1,35 metroko altuera gainditzen ez dutenentzat diseinatutako zirkuitua da. Basajaunen etetik sartzen dira zirkuitura eta, ibilbidean zehar, beren gaitasunak eta oreka lantzeko aukera dute. Zirkuitu horrek zortzi jolas eta bi tirolina ditu. Heldu batek lagunduta ibili behar dute haur guztiek.

Bestetik, zirkuitu osoa dago. Azken horrek bi zirkuitu hartzen ditu:



Mikelats-Atarrabi eta Mari. 1,35 metroko altuera gainditzen duten haurrak, gazteak eta helduak ibili daitezke horietan. 12 urtetik beherakoek heldu baten laguntza behar dute eta monitorea ere alboan izango dute laguntzeko. Zirkuitu osoak hamar jolas eta lau tirolina ditu.

Segurtasuna asko zaintzen dute eta jarduera guztiak modu seguruan egiteko beharrezkoa den materiala haiek jartzen dute. Edozein zirkuitu egiten hasi baino lehen, derrigorrezkoa da materiala erabiltzeko ikastaroa egitea segurtasun arauak eta parkea erabiltzeko baldintzak zein diren ezagutzeko. 15 minutuko iraupena du ikastaroak eta behin hori


eginda zuhaitzetan abentura hasteko prest egongo dira parte-hartzaileak.

Bestelako jarduerak

Ikastetxeekin astean zehar aritzen dira lanean eta familiarekin, batez ere, asteburuetan.

Familiarekin arroila jaitsiera ere egiten dute, eta adibidez, maiatzean bisita berezia egingo dutela azaldu digu Goiak: "Aralarrera joango gara ezagutzen dugun artzain bat bisitatzerara, eta gazta nola egiten duten ikusiko dugu. Halako jarduera alternatibo batzuk ere antolatzen ditugu".

Denda txiki bat ere badute eta inguruko produktuak salgai izaten dituzte: gazta, izozkiak... Bertako



Txindokiko itzala

Larraitz auzoa
20269 Abaltzisketa (Gipuzkoa)
943 654 717 / 601 908 669
www.txindokikoitzala.com
ingo@txindokikoitzala.com

Jarduerak: abentura parkea, orientazio proba eta arku-tiroa eskolentzat. Abentura parkea, orientazio proba, arroila-jaitsiera eta bestelako jarduera alternatiboak familientzat.

Ordutegia: martxotik edo apiriletik urrira bitartean izaten da zabalik. Familientzat 11:00etan zabaltzen dute eta azken saioa 17:00etan izaten da. Ikastetxeen kasuan, ordutegia beharren arabera egokitzen dute.

Oharra: arropa eta oinetako erosoak eramatea gomendatzen dute.

produktuak bistaratzea dute helburu nagusi.

Martxotik edo apiriletik urrira bitartean izaten da zabalik Txindokiko itzala. Neguan itxi egiten dute eta konponketa lanak egiteko edota jarduera berriak diseinatzeko probesten dute denbora tarte hori, udaberria iristen denerako dena prest izateko.

ATZEKO ATETIK



PRESIOZ BETETA

AIALA SUSPERREGI AZPIROZ

ORERETA-ERRETERIAKO KOLDO MITXELENA
BHI-KO BATXILERGOKO 1. MAILAKO IKASLEA

Ez dut nahikoa egin”, “nirekin haserretuko dira”, “gehiago egin nezakeen”, “ez dut ezertarako balio”, “ez dut lortuko”, “neure burua eta ingurukoak dezepzionatu ditut”. Horiek dira, notak direla-eta, ikasle on buruetatik pasatzen diren askotariko pentsamendu batzuk.

Azterketez eta lanez beterik gaude beti. Klasera joan, azalpenak entzun, apunteak jaso, azpimarratu, irakurri, eta badakigu jasotako hori ikasteko momentua laster iritsiko dela. Horretarako dago institutua, bai, baina egunero dugun estresa eta presioa ez dira osasungarriak. Askok eskatzen digute, eta askotan ez gara gai dena asimilatzeke, ordentzeko eta aurrera eramateko.

Badakigu notak oso garrantzitsuak direla, eta pisu hori gure gainean dugu. Nota onak dituzu edo ez duzu etorkizunik. Hori da pentsarazi digutena. Jendeak uste du nota txarrak ateratzeagatik ez duela balio, eta hori normalizatu den gezur

handi bat da. Nota batek ez gaitu definitzen, ez gaitu pertsona hobea edo okerragoa bihurtzen.

Egia da ikasleak geroz eta desmotibatuago gaudela. Oso gutxi ikasten dute gogoz, eta hori denboran zehar hezkuntza sistemak lortu duen erantzuna da. Ohitu gara pentsatzera egin behar dugun bakarra, dena buruz ikastea, azterketa egitea eta hurrengo egunerako dena ahaztea dela. Ikasle askok ez dute ia ikasten eta ez dituzte lanak fundamentuz egiten.

Denok ditugu noten gaineko kezka eta buruhausteak. Askok egin behar den bezala lan egiten ez duten arren, badakite haien notak oso garrantzitsuak direla eta haien egunerokoan egonezin hori barruan daramate. Beste ikasle askok notengatik asko borrokatzen dute. Hainbeste saiutzen dira, non askotan haien buruei gehiegi exijitzen dieten. Helburuak jartzen dituzte, eta hori ondo egon arren, gehienetan haien buruak gogor

zigortzen bukatzen dute esandakoa edo aurreikusitakoa lortzen ez baldin badute. Zenbatetan hasten dira ikasleak ikasten eta antsietate krisi bat edukitzen amaitzen?

Batxilergoan, bi urteetan ikasketak soilik existitzen direla ematen du. Bi urte oso pasatzen ditugu selektibitateko momentuari itxoiten, bi urte etorkizuneko unean pentsatzen. Eta, askotan, hainbeste murgiltzen gara pentsamendu horretan, momentuko bizitzaz ohartu gabe bizi garela.

Gure gaztetako bizitzaz gozatzeko esaten digute, gauza berriak probatzeko. Nola nahi dute hori egitea egunero lan berri batekin eta beste azterketa batekin iristen baldin bagara etxera? Ulertu dezakegu hori dela tokatzen dena, lan egiteko momentua dela. Baina, ez al dira institutuarengatik antsietatea eta estresa duten ikasle kasuak geroz eta gehiago? Ezin dugu lasai ibili badakigunean gehiago datorrela hurrengo izkinan.

2023-24 IKASTURTEKO ESKAINTZA

LEHEN HEZKUNTZA ERALDATZEN



Edukiak:

Tutore gogoetatsuaren rola, 6-12 adin tarteko haurren ezaugarriak, hezkuntza proiektuaren prozesua, espazioaren antolaketa, ebaluazio hezigarria, pedagogia sistemikoa...

Koordinatzaile pedagogikoa:

Aritz Larreta

Formazio pertsonaleko koordinatzailea:

Alvaro Beñaran

JIRAFAREN HIZKUNTZA KOMUNIKAZIO EZ-BORTITZA

Edukiak:

Adierazpen zintzoa, entzute enpatikoa, errurik gabeko guneak sortzeko trebetasuna; gatazken kudeaketa; amorraren kudeaketarako trebetasuna; mugak jartzeko trebetasuna; ikasleen autoestimua elikatzeko trebetasuna...

Formatzailea:

Nerea Mendizabal



PSIKOMOTRIZITATE ERLAZIONALA



Edukiak:

Gorputzaren bidezko komunikazioak eskaintzen duen errespetuzko entzutea, itxarotea eta laguntzeko trebetasunak eskuratzen hastea; haurren jolas librea behatzea...

Formatzailea:

Mapi Urresti

hik hasi
JARDUNALDIA

LEHEN HEZKUNTZAKO JARDUNALDIA

HOBETZEKO PREST!

Apirilaren 22an Donostian



Jordi Mateu

Nolako Lehen Hezkuntza behar dugu gaur egun?



Karmele Perez Lizarralde

Irakasleen prestakuntza gogoetatsua, hezkuntza hobetzeko giltza



San Fermin ikastola

Prestakuntza gogoetatsua praktikan

Izen-ematea zabalik apirilaren 14ra arte
www.hikhasi.eus